

BAOean 2016-07-19an argitaratuta 137 zk

Bermeoko Udala

ZARATEN ETA DARDAREN AURKAKO BABESERAKO ORDENANTZA

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2015eko azaroaren 16an izandako batzarrean, Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako Ordenantza hasiera baten onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Izapide hori eginda, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2015eko azaroaren 24ko 226 zenbakia) eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean (2015eko abenduaren 31ko 249 zenbakia) argitaratuta, jendaurrean 30 eguneko epean egonda, ez da inolako alegaziorik egon.

Hori ikusirik, eta apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. Artikuluak xedatutakoarekin bat etorritz, aipatutako Ordenantza behin betikoz onartutzat ematen da eta beraz argitaratu egingo da eta holan geratzen da:

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA	6
I IDAZPURUA.- XEDAPEN OROKORRAK	10
I KAPITULUA.- XEDE ETA HELBURUAK	10
1. artikulua.- Ordenantzaren xede eta helburuak	10
2. artikulua.- Ezarpen eremua	10
3. artikulua.- Definizioak	11
II. KAPITULUA.- OINARRI OROKORRAK	11
4. artikulua.- Udal jardueraren printzipio gidariak	12
5. artikulua.- Herritarren partaidetza	12
6. artikulua.- Ingurumen hezkuntza eta sentsibilitatea	13
7. artikulua.- Informazio eskubidea	13
III. KAPITULUA.- ZARATA ETA DARDARA KONTUETAN JARDUEREN GAINEKO ESKUMENA ETA ANTOLAKETA.	13
8. artikulua.- Udal eskumenak	13
II. IDAZPURUA.- INGURUKO ZARATAREN EBALUAZIOA ETA KUDEAKETA	15
I. KAPITULUA. SOINU-ZONIFIKAZIOA	15
9. artikulua.- Hirigintza-plangintzan integratzea	15
10. artikulua.- Soinu-zonifikazioa	15
11. Artikulua.- Soinu- kalitateko helburuak	16

12. artikulua.- Hiriko gunee lasaietarako kalitate helburuko balioak	18
13. artikulua.- Igarotze guneeak	19
II. KAPITULUA. BAIMEN BEREZIAK	19
14. artikulua.- Baimen bereziak.	19
III. KAPITULUA. ETORKIZUNEKO GARAPENAK ETA ERAIKUNTZA BERRIAK	20
15. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza garapena	20
16. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza garapeneko guneeetarako eskakizunak	20
17. artikulua.- Soinu-iturrien azterketak	21
18. artikulua.- Aukeren ikerlanak	21
19. artikulua.- Neurrien definizioak	21
20. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza-garapenean ez betetze partziala	22
21. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza- garapenean dardaren ebaluazioa	22
22. artikulua.- Eraikuntza berriei aplikatu dakieken eskakizunak	23
23. artikulua.- Eraikitze berriko eraikinak.	23
24. artikulua.- Eraikinen instalazio orokorrak.	24
25. artikulua.- Obrak eraikinetan.	24
IV. KAPITULUA. SOINU BABES BEREZIA DUTEN GUNEA	24
26. artikulua.- Soinu babes berezia duten guneeak	25
27. artikulua.- Zonakako Planen irismena	25
28. artikulua.- Zonakako Planen helburua	26
III. IDAZPURUA .- JARDUERETAN SOINU KUTSADURAREN KONTROL ETA PREBENTZIOA	26
I. KAPITULUA. SOINU-INDIZEAK INMISIO ETA IGORTZE MUGA BALIOAK	27
29. artikulua.- Baimendutako balioak	27
30. artikulua.- Jarduera berrietarako soinu-isolamenduaren indizea	30
31. artikulua.- Ebaluazio prozedura.	32
32. artikulua.- Ordutegiak.	33
33. artikulua.- Lokalen soinu-trataera.	33
34. artikulua.- Soinu-maila mugatzeko unitateak.	34
35. artikulua.- Zamaletako jarduerak	34
36. artikulua.- Dardarak neurtzea.	34
37. artikulua.- Dardarak transmititzea.	35
38. artikulua.- Makinak ainguratzea eta dardararik ez egoteko beste neurri batzuk.	35
39. artikulua.- Ur-zirkuituak.	36
II. KAPITULUA.- EKONOMIA JARDUERETAN ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA	36
40. artikulua.- Jarduera Lizentzia behar duten jardueri eskatzen zaizkien baldintzak	36
41. artikulua.- Aurretiazko Komunikazioa behar duten jardueri eskatutako baldintzak.	38
42. artikulua.- Neurri zuzentzaileak exekutatzean kalitate kontrola.	38

43. artikulua.- Ingurumenean duen eraginaren ebaluazioa behar duten jarduerak.	38
44. artikulua.- Soinu-erosotasunaren aplikagarritasuna.	38
45. artikulua.- Jarduerak badaezpada gelditzea.	39
46. artikulua.- Kautelazko neurriak hartzea	40
47. artikulua.- Lokal eta jarduerak ikuskatzea eta sartzea	40
III. KAPITULUA.- INGURUMEN JARDUKETETARAKO BALIABIDEAK	41
48. artikulua.- Exekuzio subsidiarioengatiko tasa eta ordainarazpenak.	41
IV idazpurua.-BESTE ZARATA ITURRI BATZUTAKO DARDARA ETA SOINU-KUTSADURA	41
KAPITULUA. ERAIKINAREN BARRUALDEKO AUZOTARREN EKINTZAK	41
49. artikulua.- Komunitateko zaratak	41
50. artikulua.- Betebeharrak	42
51. artikulua.- Auzokoen arteko salaketak	43
52. artikulua.- Gazteen loiak	43
II. KAPITULUA.- ALARMA ETA SIRENEN ONDORIOZKO ZARATAK	44
53. artikulua.- Xedea.	44
54. artikulua.- Alarma motak.	44
55. artikulua.- Jabeen betebeharrak.	45
56. artikulua.- Mantentzea.	45
57. artikulua.- Alarmetarako betebeharrak.	46
58. artikulua.- Baimendutako sirenak.	47
59. artikulua.- Sirenak erabiltzea debekatzea.	48
60. artikulua.- Alarmen administrazio-baimena.	48
III. KAPITULUA-	
MOTORDUN IBILGAILUEK SORTUTAKO SOINU-KUTSADURA	48
61. artikulua.Ibilgailuen ezaugarriak	49
62. artikulua.- Salbuespenak.	49
63. artikulua.- Mugak.	49
64. artikulua.- Debekuak	50
65. artikulua.- Kontrol-bideak	51
V. IDAZPURUA.- INGURUMEN DISZIPLINA	52
I. KAPITULUA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA	52
66. artikulua.- Zaintza, ikuskapen eta kontrol jarduera	52
67. artikulua.- Ikuskapen aktak.	52
68. artikulua.- Administrazioarekin elkarlana	53
69. artikulua.- Salaketak	54
70. artikulua.- Ikuskatzaileak	54
II. KAPITULUA.- LEGEZKOTASUNA BERREZARTZEA	55
71. artikulua.- Legezketasuna berrezartzearen prozedura	55
72. artikulua.- Neurri zuzentzaileak betetzea	55
III. KAPITULUA.- ZIGOR PROZEDURA	56
73. artikulua.- Arduradunak	56
74. artikulua.- Zehapen-espedienteak zabaltzea.	57

75. artikulua.- Izapideak eta ebazpena.	57
IV. KAPITULUA- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK	58
76. artikulua.- Arau-hauste eta zehapenen erregimena	58
77. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.	58
78. artikulua.- Arau-hauste larriak.	59
79. artikulua.- Arau-hauste arinak.	60
80. artikulua.- Ibilgailuak gelditzea.	61
81. artikulua.- Zigorrak	61
82. artikulua.- Zigorrak mailakatzea eta ordezkatzeta.	62
XEDAPEN GEHIGARRIA	62
XEDAPEN IRAGANKORRA	63
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	63
AZKEN XEDAPENAK	63
LEHENENGOA:-	63
BIGARRENA:-	63
HIRUGARRENA	64
ERANSKINA.- DEFINIZIOAK	65
II. ERANSKINA- SOINU- NEURKETETARAKO METODOLOGIAK.	69
III. ERANSKINA- SOINU EBALUAZIOETARAKO AKREDITAZIO IRIZPIDEAK ZAINZA, IKUSKATZEA, INGENIARITZA ETA LABORATEGIA (ERREFERENTZIA KUADROA).	90
IV. ERANSKINA- ERAIKIN BERRIETAKO OBREI ESKATUTAKO ZARATEI BURUZKO AZTERLAN ETA TXOSTEN TEKNIKOEN EDUKIA ETA BESTE OBRA ETA JARDUERETARAKO BAIMEN BEREZIAK.	92

ZARATEN ETA DARDAREN AURKAKO BABESERAKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Azken urteetan soinu maila altuen eraginpean egotearen kalteen inguruko kontzientziazioa, publikoa zein pribatua, garatzen joan da. Honek, zarata gune batzuk arautzea ekarri du. Gure ingurunean ondoko hauek egin dute: 2002ko ekainaren 25ean Europako Parlamentuak eta Kontseiluak eman zuten inguruneko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2002/49/EE Zuzentarauan eta azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legearen garapena ekarri zuenan; 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, giro-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez garatzen duena; urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zonifikazio akustikoari, kalitatezko helburuei eta emisio akustikoei dagokienez garatzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren bitartez. Honek bere lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen du zarataren gaineko ordenantza zehatzak dituzten Udalek, bertan agindutakoari egokitu beharko dutela bi urteko epean. Aipatutako agindua betetzeko onartzen da Ordenantza hau.

Horrela ba, aipatutako Dekretu horren pean, 4 urteko epea ematen da zarata igortzen duten gune guztiengandik Bermeoko lurraldeari eragiten dioten soinu-mailen ebaluazio orokorra egitea ahalbideratuko duen zaraten mapa egiteko. Osoko Bilkurak 2015eko azaroaren 16ko dataz onartu dau zarata mapa hau.

Bermeoko lurralde zatirik handiena Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta Gaztelugatxeko Biotopo Babestuaren barruan dago. Gune hauek biodibertsitatea zaintzeko eta babesteko diseinatu dira, baita ikuspuntu jasangarri batetik inguru hauen giza- eta ekonomia-garapenerako ere. Beste alde batetik, Bermeoko Udalak 2011n onartu zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO). Bertan planeamenduko eredu, helburu eta irizpideak definitu ziren, zeintzuk herriaren gaur egungo eta etorkizuneko beharrazanez erantzunez natura- eta kultura- mailako elementu eta esparruekin errespetuzkoa izango zen.

Guzti horregatik, Ordenantza honek kontzeptualizazio honi erantzuten dio eta gainera, hirigintzako planeamenduaren aurreikuspenetik soinu-aldiera kontuan izango duen udalerrri bat diseinatu ahal izatearen uste osoari, hainbat erabilera eta azpiegituren artean gatazkak sortzea ekiditeko helburuarekin. Era berean, auzokoen atsedeen eta soinu-kalitatea jarduera ekonomikoekin bat etorri ahal dela uste dugu, neurri zuzentzaileak lehenetsiz jarduketa zigortzaileei.

Modu honetan Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (2011ko urriaren 20an onartu zen behin betikoz eta beronen araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2012ko apirilaren 24an argitaratu zen) garapenean aldaera hori sartzeko tresnak barneratzen dira.

Hirigintza eta Bermeoko herritarren soinu-kalitatearen babesa uztartzeko konpromisoa da Ordenantza hau garatzea ekarri duena. Honen sistematika zabaltzen da soinu-zonifikazioaren bitartez plangintza orokorretik herritarren ekintza zehatzek bete behar dituzten xehetasunetaraino.

Ordenantzak 5 idazpuru ditu, xedapen gehigarri bat, iragankor bat, indargabetzaile bat eta hiru azkeneko. Gainera lau eranskin ditu. Lehenengoa definizioei buruzkoa, bigarrena soinu-neurrien metodologiari buruzkoa, hirugarrena soinu-ebaluazioetarako egiaztatze Irizpideen ingurukoa eta laugarrena eraikin berrietako lanetan eskatutako zaraten ikerlanek eta txosten teknikoek izan behar dituzten Edukiaren eta beste lan eta gertakarietarako baimen berezien ingurukoa.

I. idazpurua xede, helburu eta aplikazio eremuari eta Ordenantza egitea iradoki zuten oinarriari buruzkoa da eta soinu-kutsadurarekiko udal-eskumenak ere aipatzen ditu.

II. idazpuruak inguruko zarataren ebaluazioa eta kudeaketa arautzen ditu, udal-plangintzan soinuaren aldagaia eta baita soinu-kalitatearen helburuak eta etorkizuneko hirigintzako garapenetan eta eraikin berrietako bere proiektzioa zehaztea ere nahitaez sartzearen preskripzioarekin. Era berean, Soinu Babes Berezia duten Guneak arautzen dira, hala nola soinu-kalitatearen helburuen ez betetzeak egiaztatu diren modukoak.

III. idazpurua soinu-indizeak arautzera jaitsi da eta ekonomi-jardueretako esku-hartze

administratiboak arautzen ditu. IV. idazpuruan eraikuntzaren barruan auzotarren jarduerak eta alarmek eta motordun ibilgailuek sortzen dituzten zaratak arautzen dira. Azkenez, V. idazpurua hirigintza arloaren eta prozedura zigortzailearen ingurukoa da.

Azpiegitura eta jarduera ekonomikoen jabeei eta herritarrei orokorrean, zaratari dagokionez indarrean dagoen araudia, eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua ezartzea errazteko tresnak¹ ematen saiatu da, edukirik ez bikoizten saiatuz ezta bertan ezarritako muga-balioak aldatzen ere.

Zentzu berean, Ordenantza hau egiteko Bizkaiko Foru Aldundiak 2010ean egindako zarata eta dardarak sortzeari dagokienez, bizitegirako hiri lurzoruko jarduerak kontrolatzeko Gida Teknikoa izan da kontuan.

Herritarren sentsibilitateak Administrazioei eskatzen die lasaitasuna, atsedena eta ongizatea ahalbidetzen duen inguruaz gozatzeko eskubidea bermatzea, batez ere hiri-ingurunean.

Helburu honetarako, Zarata eta Dardaren kontrako babeserako Udal Ordenantza, inguruaren kalitatea eta ingurumenean eragin dezaketen jarduera guztietan udalaren esku-hartzea arautzeko esparru arauemailea ezarriko duen tresna izatea lortu nahi da.

Ordenantza honek duen araudiak estatuko eta autonomiako legedian du bere eskumen zilegitasuna, batez ere otsailaren 27koa, 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorreko 34, 37.3 eta 84. artikuluetan.

¹DB HRren formulazioa duen eta garatzen duen tresna informatikoa dago eta sarrien ematen diren kasuak betetzen direla egiaztatzen uzten duena: tresnak balio du aireko eta kolpe zarataren edo biak batera, esparru bikoteetako soinu isolamenduaren azterketa banan bana egiteko. Birgaitze proiektuetan eta egon dauden eraikinetan ezargarria da. Tresna ofiziala ondoko webgunean dago eskuragarri: <http://www.codigotecnico.org/web/recursos>

I IDAZPURUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- HELBURU ETA XEDEAK

1. artikulua.- Ordenantzaren helburu eta xedeak

1. Ordenantza honek modu antropikoan eragindako zarata eta dardaren aurka babesteko arau-esparrua finkatzeko helburua du, horrela, udalaren eskumenen eremuan, esparru honen barruan Bermeoko udalerrian garatzen diren izaera publiko eta pribatutako jardueretan esku-hartzea arautuz.

2. Xede hau betetzeko asmoz ingurumen-kalitateko irizpideak ezartzen dira ondorengo gai hauetan: zarata eta dardarak, muga balioak, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak eta esku-hartze prozedurak, ebaluaziokoak eta neurtzekoak.

3. Udal administrazioa zein soinu-guneen jabe, titular edo sustatzaileak, zarata eta dardarengatiko kutsadura ahalik eta gehien jaisten saiatuko dira, mugak alde batera utzita, kostua zentzuzkoa denean eta bilatzen den helburuarekiko proportziozkoa.

2. artikulua.- Ezarpen eremua

1. Ordenantza honetan ezarritako xedapenei men egingo diote ondorengoek: pertsona edo ondasunetarako edonolako arriskua edo eragozpena sor dezaketen zarata edo/eta dardarak eragiten dituzten bide publikoko lan, jarduera edo instalazioak. Era berean beronen pean geratzen dira eraikuntza berriak eta etorkizuneko hirigintza-garapenak, hauek soinu-kutsaduraren hartzaile moduan ulertuz.

2. Zarata igortzen duten honako gunek hauek kanpo geratzen dira:

- a) Herriko jaiak edo zaindariaren jai edo antzekoak direla-eta ospatzen diren ikuskizun publiko eta aisialdi jarduerak eta araudi berezia dutenak, izan beharreko baimenak badituzte.

b) Etxebizitza batetik besterako eragozpenak, beraien arauketa Juridikoa Jaubetza Horizontalaren lageari dagokionean, horietan udal araudien bidez arautako jarduerak egiten direnean izan ezik.

Kasu horietan udal administrazioak probak eta neurketak aurkeztu ahal izango ditu horrela eskatzen zaionean, araudi orokorrak ezarritako baldintzekin bat etorriz.

c) Elkarteratzeak eta kaleko zalaparta, iskanbila eta abarrek sortutakoak.

d) Dagokion lantokian sortutako soinu-kutsadurari dagokion laneko jarduera, laneko legediak xedatutakoaren arabera gidatuko dena.

e) Autonomia- , foru- edo estatu- eskumena duten bide-, tren-, portu- eta aireportu- azpiegiturak, dagoeneko estatuko eta autonomiako araudian araututa daudelako.

f) Bideak garbitzeko eta hondakinak batzeko udal zerbitzuak.

3. artikulua.- Definizioak

1. Kontzeptu berak erabiltzearen, Ordenantza honetako I. eranskinean ageri direnak erabiliko dira.

2. Aipatutako eranskin horretan jasotzen ez diren hitzak ondoko hauetan ezartzen den moduan ulertuko dira: 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoan eta Erakuntzako Kode Teknikoan, edo ordeztzen duen araudian.

II. KAPITULUA:- OINARRI OROKORRAK

4. artikulua.- Udal jarduera zuzentzen duten oinarriak

1. Udal jarduerak ingurumenaren babesa bermatuko du, horrek giza ongizatea eta bizi-kalitatea zaintzea dakarrelarik.

Babes hau Udalaren kudeaketa- eta erabaki- esparru guztietan sartuko da, udaleko sailen partaidetzaren bitartez.

2. Bermeoko Udalak zarataren aldagaia sartuko du hiriko planifikazio eta kudeaketan, udaleko mugikortasun politiken diseinuan, hondakinak batzeko zerbitzu publikoen diseinuan eta ekonomia-jardueren arautze eta kontrolean.

3. Udaleko ikuskatze zerbitzuen uste arrazoituan zarata sahiesterraz edo funsgabekoa dagoenean, Alkatetzari proposatu ahal izango diote zarata desagertu edo gutxitzeko, soinu mugak bete zein ez bete.

5. artikulua.- Herritarren parte-hartzea

1. Udalak sustatuko du arlo sindikal, politiko, sozial eta ekonomikoen ordezkari diren herritar, elkarte eta erakundeek, udalerriko ingurumen-kalitatearen esparruaren barruan, zarata eta dardaren aurka babesteko bitartekoak garatzen aktiboki parte hartzea.

2. Udala, Urigintza, Zerbitzu eta Ingurumen Sailaren bitartez, zarata eta dardaren aurka babesteari dagozkion udal eskuduntzak hobetu, bete eta gauzatzekoan herritarren partaidetza, informazio, aholkularitza eta proposamenetarako organoa izango da.

6. artikulua.- Ingurumen hezkuntza eta sentsibiltatea

Zarata eta dardaren gaien herritarren sentsibilizazio, parte-hartze eta heziketarako jarduerak garatu ahal izango ditu Udalak, eta ezagutza, informazio eta inguruarekin arduratsuak diren jokamoldeak zabalteko programak garatu. Edozein kasutan ere, informazioa eta ingurumen- hezkuntza beronen beharrezko elementu moduan hartuz, herritarren eta herriko jardueren jabeen artean zabalpena eta ezagutza erraztuko dutenak.

7. artikulua.- Informazio eskubidea

1. Edozein pertsona fisiko edo juridikok bere esku izango du, aldez aurretik eskatuta eta aparteko interesik duela frogatu gabe, udaleko edozein sailetan zarata eta dardaren inguruan dagoen informazio guztia eta eskatzailearen nortasuna kasu guztietan isilpean gordeko da.

2. Informazioa ondoko gai hauei buruzkoa izango da: zarata eta dardaren aurkako babesaren araudiaren gaiari buruz udal eremuan aurreikusten dena eta baita jardueri eta euren garapen eta instalazioei eragin diezaioketen edo bere osagaien egoerari eragin diezaioketen neurri zuzentzaileena. .

3. Informazioa soil-soilik indarrean den legeriak aipatzen dituen kasuetan ukatu ahal izango da.

III. KAPITULUA.- ZARATA ETA DARDARA KONTUETAN JARDUEREN GAINKO ESKUMENA ETA ANTOLAKETA.

8. artikulua.- Udal eskumenak

1. Zarata eta dardaren arloko udal jarduera, ezar daitekeen legerian eta Administrazio Publikoei eta udal arlo eta zerbitzuei esleitutako eskumenen arabera garatuko da, beti ere, eraginkortasun, lankidetzaz, parte-hartze eta koordinazioaren oinarri orokorren esparruan, bereziki:

- a) Bermeoko zaraten mapa egitea, onartzea eta berraztertzea, beste administrazio batzuk zarata mapak egiteko duten eskumenen kalterik gabe.
- b) Hiri- plangintzako tresnetan sartuko diren soinu-guneak mugatu eta onartzea.
- c) 14. artikuluan aurreikusitako suposizioetan Ordenantza honetako 11. artikuluan eta 213/2012 Dekretuan adierazitako soinu-kalitatearen helburuen behin behineko etendura.
- d) Herriko gune lasaiak mugatzea eta dagokion Soinu-Zaintzako Planaren definizioa.
- e) Soinu-gune bat lehentasunezko jardun gune moduan aitortzea.

- f) Soinu-Babes Bereziko Gunea (SBBG) aitortzea eta dagokion Eremuko Plana onartzea.
- g) Soinu-Egoera Bereziko Gune (SEBG) aitortzea eta dagokion eremuko plana onartzea.
- h) Eraikitzei, obrei, instalazioei, industria-, komertzio-, aisialdi-, musika-, ikuskizun eta zerbitzu- jardueri mugak jartzea, lizentzia edo baimen bitartez aurretiazko kontrola ezarriz, edo aurretiazko komunikazioari edo ardurapeko adierazpenari lotuta daudenean jarduketan geroagoko jarraipenari.
- i) Ikuskatzearen jarduketa eta zigortzeko ahalmena erabiltzea.
- j) Legeztatzea berrezartzeko prozeduren tramitazioa, behin behineko neurriak hartzea, exekuzio aginduak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.
- k) Ordenantza hau betetzetik ondoriozta daitekeen beste edozein jarduera.

2. Ordenantza hau derrigorrez eta zuzenean betetzekoa da eta horrek ez du eskatzen bere aplikazio eremuan jarduera guztietarako aurretiazko lotze ekintza edo eskakizunik.

II. IDAZPURUA.- INGURUKO ZARATAREN EBALUAZIOA ETA KUDEAKETA

I. KAPITULUA. SOINU-ZONIFIKAZIOA

9. artikulua.- Hirigintza-plangintzan integratzea

1. Hirigintza-plangintzaren tresnek, eta baita bere berrikuste eta aldaketek ere, urbanizatutako esparruen eta etorkizuneko hirigintza garapenetako soinu-zonifikazioak barne hartuko dituzte, baita soinu-aldaera modu egokian sartzeari utziko duten soinu-kudeaketako gainontzeko tresnak ere.

2. Halaber, planeamenduaren idazketan zarata-mapatik eratorritako informazioa eta bere ekintza planekoa izango da kontuan.

10. kapitulua.- Soinu-zonifikazioa

1. Hirigintza-planifikazioaren tresnek barne hartuko dute zonifikazio akustikoa ondoko

tipologietan, lurzoruaren erabilera nagusiaren arabera:

- a) bizitegi erabilera duen lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak
- b) industria erabilera duen lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak,
- c) olgetarako eta ikuskizunetarako erabilera duen lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak,
- d) aurreko paragrafoan aurreikusi ez den hirugarren-erabilera duen lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak,
- e) soinu-kutsaduraren aurkako babes berezia eskatzen duen osasun-, hezkuntza- eta kultur- erabilera duen lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak,
- f) garraiorako azpiegiturek edo eskatzen duten bestelako ekipamendu publikoek ukitutako lurraldeko eremuak/sektoreak,
- g) soinu-kutsaduraren aurka babes berezia behar duten gune naturalak eta gaia arautzen duten legeekin bat datozen babestu moduan aitortutako gune naturaletan definitutako lurraldeko eremuak/sektoreak

2. Zonifikazio honetan berau kudeatzeko tresnak sartu beharko dira; hala nola, soinu-zorra duten guneak, igarotzeko guneak, gune lasaiak eta iturburu naturala duten soinuen erreserba.

11. artikulua.- Soinu- kalitateko helburuak

1. Arlo desberdinetako soinu-kalitateko helburuak eta berauek betetzea, eta baita barruko aldeari aplikatu dakizkion helburuak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 231/2012 Dekretuan ezarritakoak dira eta jarraian xehetzen dira:

2. Etorkizuneko hirigintzako garapenetako kanpoko ingurunerako soinu-kalitateko helburuak Ordenantza honetako A taulan zehaztutakoak dira, 5 dBAtan gutxituta.

A taula. Egon dauden eremu urbanizatueterako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.

Soinu-eremu mota		Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura- erabilerako lurzoruak nagusi diren eta zarata- kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde- esparru edo sektoreak.	60	60	50
A	Bizileku- erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan aurreikusi diren hirugarren-erabileratik desberdinak diren lurzoruak nagusitasuna duen lurraldeko eremuak/sektoreak	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	73	73	63
B	Industria- erabilerarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo sektoreak.	(1)	(1)	(1)

Beren eremuaren mugan, mugakide dituen eremuen zonakatze motari dagozkionak izango dira.

Oharra Kanpoaldean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaierara neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

B Taula. Etxebizitza-, bizileku-, osasun-, hezkuntza edo kultura- erabileratara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriari aplikatzeko zarataren kalitate akustikoko helburuak. (1)

Eraikinaren erabilera (2)	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L _d	L _e	L _n

Etxebizitza edo bizileku-erabilera	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalea	Egongelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

Eremuaren barruko aldera iristen diren zarata-foku guztien (eraikin beraren edota ondoko eraikinetako instalazioak, barruko aldera heltzen den inguru-zarata) immisio-indizeari dagozkio B taulako balioak.

(2) Eraikinaren erabilera benetako erabilerari dagokio; hau da, ezarritako ordutegietako baten barruan eraikina erabilera horietarako baliatzen ez bada, ez zaio dagokion kalitate akustikoko helburua aplikatzen.

Oharra: Barnealdean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuek 1,2 eta 1,5 metro arteko garaierara neurtuko dira.

C taula. Etxebizitza-, bizitegi-, osasun-, hezkuntza edo kultura- erabileratara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriari aplikatzeko zarataren soinu- kalitateko helburuak.

Eraikinaren erabilera	Dardara-indizea
Etxebizitza edo bizileku- erabilera	75
Ospitalea	72
Hezkuntza- edo kultura- erabilera	72

3. 2013/2012 Dekretuko 35. artikuluan hitzartutakoaren arabera egingo da aurreko soinu-kalitatearen helburuak betetzearen egiaztapena.

12. artikulua.- Hiriko gune lasaietarako kalitate-helburuko balioak

Gune lasaiek, aurreko artikuluan aipatutako A taulan aurreikusitakoak baino 5dBA baxuagokoa den kalitate-helburua izango dute. Kalitate-helburu hauek guneko garapen jasangarriarekin bateragarria den ahalik eta soinu- kalitaterik onena gorde beharko dute.

13. artikulua.- Igarotze- guneak

1. Igarotze-guneetan, hau da, elkarren ondoan dauden soinu gune biren arteko lotuneen zonifikazioa kudeatzeko mugatuta dauden lurraldearen zerrendak, zeintzuetan kalitate helburuak 5 dBA (A dezibelioa) baino gehiagoko aldaera duen eta eremu bien arteko lotuneko mugatik albo bakoitzeko 100 metroetako mugatutako lekua betetzen duena, zarata mapa egin beharko da. Mapa honen helburua, neurri zuzentzaileak, prebentziozkoak edo zaintzakoak diseinatzea izango da eta gainera ezartzeko arduradunak ezarriko dituzte. Neurriok nahitaezko lizentzi edo baimenetan sartu ahal izango dira.

2. Soinu- egoera honen kudeaketak horrela eskatzen duen kasuetan, Bermeoko Udalak igarotze-gunearen mugatze geografikoa handitu ahal izango du.

II. KAPITULUA. BAIMEN BEREZIAK

14. artikulua.- Baimen bereziak.

1. Udal agintaritzak, baimen berezi baten bidez, aldi baterako eta gune jakin batzuetan, araudi honetako 11. artikuluan zehaztutako kalitate- helburuak betetzetik salbuetsi ahal izango ditu lanak egiteko direla-eta edo gizarte-, politika-, kultura-, kirol- edo antzeko izaera duten edo premiatasun, arrisku edo interes orokorra duten bestelako ekitaldiak antolatzean.

2. Salbuespenetarako baimenak ematean, soinu-eragina aurrez aztertuta, baldintzak, ordutegiak eta igorpen maila gorenenak zehaztuko dira.

3. Era berean, sustatzaileak jakinaraziko die eragindako herritarrei, salbuespena eragin

duen egoeraren arrazoia eta beronen iraupena zein izango den. Udalak kontrakoa zehaztu ezean, atari edo kolarretan agerian ipiniko den azalpen-oharrean agertuko da informazioa. Hauetan gertakizunaren izaera eta iraupena zehaztuko da.

4. 6 hilabetetik gorako iraupena aurreikusten den lan eta gertakizunetan, soinu-inpaktuaren azterlana egitea beharrezkoa izango da, hartu beharreko neurri zuzentzaileak definitzeko. Lan honek, ordenantza honetako IV. eranskinean aipatutako gutxieneko edukia izango du.

5. Dagokion udal teknikariaren iritziz, leku berean soinu-inpaktua izan duten gertakizunen kopuruak zarata dosi zehatz bat gainditu duenean, teknikariak neurri zuzentzaile edo baldintzagarri murriztaileagoak proposatu ahal izango ditu, kokagune horretako soinu-kalitatea babesteko helburuarekin.

III. KAPITULUA. ETORKIZUNeko GARAPENAK ETA ERAIKUNTZA BERRIAK

15. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza- garapena

Kanpoaldean soinu-kalitatearen helburuak betetzen ez diren guneeetan ezin izango dira etorkizuneko hirigintza-garapenak egin, 20 eta 26. artikuluetan esandakoaren kalterik gabe.

16. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza-garapeneko guneeetarako eskakizunak

Etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten den soinu-guneetan, hirigintzako kalifikazio aldaketak barne, dagokion hirigintza- eta ingurumen- izapidetzarako Soinu-Eraginaren Azterlana izan beharko du. Azterlan honek zarata-mapak eta soinu-ebaluazioak barne hartu beharko ditu, inguruko soinu-eragin osoa aurreikusten utziko dutenak eta gutxienez honako hauek jasoko dituztenak:

- a) 17. artikuluan deskribatutakoaren arabeko soinu-iturrien azterketa.
- b) 18. artikuluan deskribatutakoaren arabeko aukeren ikerlana eta
- c) 19. artikuluan deskribatutakoaren arabeko neurrien definizioa.

17. artikulua.- Soinu-iturrien azterketa

Aurreko artikulua erreferentzia egiten dion soinu-iturrien azterketak ez ditu gaur egungoak soilik barne hartuko (funtzionatze baldintzak 20 urterako urteroko ikuspegi baten kontuan hartuz), baizik eta etorkizunekoak ere hartuko ditu eta bereziki planifikatutako hirigintza bide berriak ere bai. Baita eremuari eragiten dion industria edo jardueren garapen aurreikuspena ere.

18. artikulua.- Aukeren ikerlanak

Diseinu aukeren azterlana eremurako edo eremuetarako (eraikuntza-lursail desberdinen kokaleku eta antolaketa desberdina eta soinua igortzen duten iturriekiko erabileren orientazioa) egingo da, aplikagarria den udal planeamenduko antolamendu xehetuaren onarpenaren aurreko pausu modura. Etorkizuneko garapen horri lotutako egitasmoak baleude, artikulua honetan aurreikusten diren soinu ikerlanak idaztean kontuan izango dira.

19. artikulua.- Neurrien definizioak

1. 11. artikuluko soinu kalitateko helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurrien definizioa eta teknikoki eta ekonomikoki neurrikoak, hasiera baten soinu eremuan kanpoko aldea babestera bideratuko da. Horrela helburu balioak bete daitezten zainduko da, eraikitako eremuetan soinu erasotzailea eraikin berezietan leihoak dituzten fatxada guztietan eta baita kanpoko aldean eraikinik gabeko eremuetan behegainetik 2 metrotara aintzat hartuz. Neurri hauen definizioek exekuzio epeak eta beronen arduradunak barne hartu beharko ditu.

2. Ezarri beharreko neurrien desberdintasun tekniko edo ekonomikoagatik kanpoaldea ezin bada babestu soinu kalitatearen helburuak lortzeko, behar beste frogatuta, kasu guztietan garatuko dira neurri gehigarriak eraikinen barruan soinu kalitatearen helburuak bete daitezten, artikulua betetzearen kalterik gabe.

3. Soinu ikerlanaren ondorio moduan kalitate helburuak betetzeko, neurri zuzentzaile osagarriak ezartzeko denbora aldi desberdinen frogatutako definizioa ondorioztatuko balitz, aurreko paragrafoari erantzunez, aipatutako ezartze aldi bakoitzean eraikinen

barruan soinu kalitatearen helburuak betetzea bermatu beharko litzateke.

20. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza-garapenean ez-betetze partziala

Etorkizuneko garapenak egitearen ondorio moduan eta behin hauek amaituta, kanpoaldeko soinu kalitatearen helburuen zati baten ez- betetzea egiaztatzen denean, Administrazio sustatzaileak egokiak diren neurri zuzentzaileak ezarri beharko ditu 23 eta 24. artikuluetan aurreikusitako moduan, ez-betetzea zuzendu arte.

21. artikulua.- Etorkizuneko hirigintza- garapenean dardaren ebaluazioa

Tren ardatz batetik 75 metro baino gutxiagora eraikinak egitea aurreikusten diren hirigintzako etorkizuneko garapenetan, ezarri beharreko soinu kalitateari buruzko helburuak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezkoa denean neurri zuzentzaileak ezartzeko, Soinu Eraginaren Azterlanak dardara mailen ebaluazioa edukiko du kasu guztietan.

22. artikulua.- Eraikuntza berriei aplikatu dakieken eskakizunak

1. Ezin izango da inolako eraikitze baimenik eman etxebizitzetarako, ospitale-, hezkuntza- edo kultura- erabileretarako, baldin eta baimena ematen den unean, kanpoaldeko soinu-kalitateko helburuak ez badira betetzen, balizko bi hauetan izan ezik:

- a) Behar den moduan eragindako interes publikoko arrazoi bereziak egotea,
- b) soinu- babes berezia duten guneeetan

2. Edonola ere, barruko gunerako kalitate helburuak bete beharko dira. Horretarako, gai horretarako arrazoitutako txostena egin beharko da, dagokion lizentzia eman baino lehen, kanpoaldea babesteko neurri zuzentzaileak ezarriz.

23. artikulua.- Eraikuntza berriko eraikinak

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasita, eraikuntza berriko eraikin guztiek, baldintza akustikoei dagokienean, Eraikuntzari buruzko Oinarrizko Arauan jasotzen diren betekizunak bete beharko dituzte, eta aipatu arau horren gomendioak

derrigorrez bete beharrekoak dira (elementuen isolamendua eta instalazioetako zarata), «in situ» neurtuta.

2. Neurketa hauek kreditatutako erakundeak egingo ditu, eraikinaren lehenengo solairuan eta obra baimenetan oinarritzko baldintzatu moduan ezarriko dira.

3. Hori lortzeko, tokian bertan egindako soinu- neurketen ziurtagiria eskatu ahal izango du Udalak; ziurtagiri horretan instalazioen isolamendu indizeak eta zarata mailak jasoko dira. Xehetasun horiek lanak bukatu ondorengoak eta lehen okupazio baimena baino lehenagokoak izan beharko dira. Neurketa hauek eraikinaren soinu baldintza osoen adierazgarri izango dira eta etxebizitzaren sustatzaileak egindako laginketetan oinarrituko dira.

24. artikulua.- Eraikinen instalazio orokorrak.

1. Garajeko atearak eta merkataritza lokaletako pertsiak eraikitzerako orduan, horiei eusteko atariak egiturara tinkatuak egon beharko dute dardaren aurkako osagaien bidez (atari flotagarria).

2. Igogailuak instalatzerakoan, dardaren aurkako giden bitartez egiturara lotuta egon beharko dira, eta makinak eta maniobra-elementuak dagozkien bankada flotagarrian jarriko dira.

3. Makina gelek (igogailu zein, berogailu, jasogailuak, eta abar...), Ordenantza honetako 29. artikuluko F eta G tauletako immisio mugak bete ditzaten, aireko zaratetarako isolamendua eduki beharko dute.

4. Gomendio moduan, uraren igarobide diren hodi eta elementu guztiek dagozkien dardaren aurkako osagaiak erabiliz instalatu beharko lirateke.

5. 30. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, bizileku erabilera duten eraikinetan behar beharrezkoa izango da lonja, garaje edo merkataritzako erabilera dutenen forja-banatzaila hormigoi trinkozkoa izatea, aireko zarataren gutxienezko 50dBA

isolamenduarekin.

25. artikulua.- Eraikinetako lanak

Eraikin baten barruan zarata sor dezakeen edozein proiektu soinu eragina ahalik eta gehien txikituz egingo da, eta beti 07:00tik 19:00etarako ordutegian eta astegunetan.

IV. KAPITULUA. SOINU-BABES BEREZIA DUTEN GUNEAK

26. artikulua.- Soinu- babes berezia duten gunek

Soinu- kalitatearen helburua betetzen ez diren soinu-gunek, aplika daitezkeen mugako balioak soinu iturri igorleetatik ikusita ere, soinu-babes berezia duten gune izendatuko dira ondorengo preskripzio hauen arabera:

- a) Etorkizuneko hirigintza-garapenak Soinu-Babes Berezia duten Gune moduan ondoko egoeraren bat gertatzen denean baino ezin izango dira izendatu eta etorkizuneko hirigintza garapenaren soinu-inpaktuaren azterlanaren markoan kapitulu honetako zehaztapenak jarraituz neurri zuzentzaileak ezartzen direnean:
 - Dekretu hau indarrean ezartzen denean antolamendu xehatua hasieraz onartuta egotea edo
 - Hiri lurzoruko berritzapen suposizioak izatea.
- b) SBBG izendatzeak ondoko gutxieneko edukia izango du:
 - Gunearen mugaketa,
 - soinu-iturriak identifikatzea eta bere soinu ekarpena,
 - eremuko plana, hurrengo artikuluan aurreikusitako moduan
- c) Behin soinu-kalitatearen helburuak lortuta, Soinu Babes Berezia duten Guneei ezar dakieken erregimena etetea adieraziko da.

27. artikulua.- Zonakako Planen irismena

1.Udalak soinu kutsadura txikitzeko dagozkien azterlanak jasoko dituen eremu-planak finkatuko ditu eta soinu babes berezia duten gune bakoitzean garatuko dira.

2. Proposatutako neurri bakoitzerako nahikoa den bideragarritasun ekonomikoko azterlana

izango du, eta aurrera eramateko pertsona edo erakunde arduradunak zehaztuko ditu, soinuari dagokionez onura zein den aztertuz eta berau garatzeko kostu/onuraren harremana. Hartutako irtenbideetarako aurrera eramango diren neurri zehatzak garatuko diren exekuzio egitasmoa egingo da.

3. Eremuko Planak, identifikatutako neurri zuzentzaile bakoitza abian jartzeko egutegia zehazten den plangintza izan beharko du.

4. Eremuko Plan bat definitzeko zarata-mapa zehatzak eta soinu-ebaluazioak egin beharko dira, dagokien neurri zuzentzaileen diseinua eta soinu-eragin orokorraren ikerketa baimenduko dutenak.

28. artikulua.- Zonakako Planen helburua

1. Eremuko Planaren helburua, hasiera baten soinu-eremuetako kanpoaldea babesteko teknikoki eta ekonomikoki egokiak diren neurrien garapena da, modu horretan soinu-kalitatearen helburuko balioak betetzen direla zainduko da, soinu erasotzailea eraikin hautemangarriak leihoak dituzten fatxada guztietako altuera guztietan hartuko da kontuan, baita eraiki gabeko gunetako kanpoaldean lurretik 2 metrotarako altueran.

2. Kanpoaldea babestu ezin denean soilik, ezar daitezkeen soinu kalitatearen helburuak bete arte, neurri osagarriak garatuko dira, behintzat eraikinen barrualdean kalitate helburuak bete daitezen.

3. Behin aurreko paragrafoak betetzeko Eremuko Planean jasotako neurriak ezarrita, kalitate helburuek bete gabe jarraituko balute, Udalak eremu hori Soinu Babes Berezia duten Gunetzat joko du. Horretarako neurri osagarriak definitu beharko dira epe luzean soinu kalitatea hobetzeko eta aplikatu behar den soinu kalitatezko helburu horiek betetzera begira.

III. IDAZPURUA.- JARDUERETAKO SOINU KUTSADURAREN KONTROL ETA PREBENTZIOA

I. KAPITULUA. SOINU-INDIZEAK IMMISIO ETA IGORTZE MUGA BALIOAK

29. artikulua.- Baimendutako mailak

1. Ez da baimentzen eraikinen barrualdean zein kanpoaldean hurrengo tauletako muga balioak gainditzen duten soinu mailarik.

2. Maila horiek ordenantza honetako II. eranskinean ezarritakoaren arabera ebaluatzen dira. Gaitutako udal teknikariek egin beharreko jarduera ikuskapenak direnean taulan ezarritako mailak betetzen direla iritziko da egindako neurketetan taula horiek 3 dBA baino gehiagotan gainditzen ez badira.

Hala ere, etorkizuneko jarduerak garatzeko proiektuetarako, ezargarrizat hartzen dira, industria- zaratarako 213/2012 Dekretuaren II. Eranskinean jasotako soinua kalkulatzeko bideak.

D taula. Egon dauden jarduerari eta berriei ezar dakikeen gehienezko zarata immisio muga balioak

Deskribatutako erabileratik isolatutako eraikinak edo soinu-eremu mota		Zarataren adierazleak L_{Amax}
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura- erabilerako lurzoruak nagusi diren eta zarata- kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde- esparru edo sektoreak.	80
a	Bizileku- erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	85
d	c) paragrafoan jaso ez den bestelako hirugarren sektoreko erabilerarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	88
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	90
b	Industria- erabilerarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	90

Oharra: kanpoaldean aplika daitezkeen muga balioak lurretik 2 metroko garaieran neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

E taula. Egon dauden jardueri eta berriei ezar dazkieken gehienezko zarata immisio muga balioak (ingurune hartzailean)

Deskribatutako erabileratik isolatutako eraikinak edo soinu-eremu mota		Zarataren adierazleak		
		L _{K,d}	L _{K,e}	L _{K,n}
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura- erabilerako lurzoruak nagusi diren eta zarata- kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde- esparru edo sektoreak.	50	50	40
a	Bizitegi erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak (1)	55	55	45
d	c) paragrafoan jaso ez den bestelako hirugarren sektoreko erabilerarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	60	60	50
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	63	63	53
b	Industria- erabilerarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru/ sektoreak.	65	65	55

(1) Inolako soinu eremutan ez dauden bizitegirako erabilera duten eraikinei ezartzeko ere badira balio muga hauek, leihoak dituzten fatxada guztietan soinu erasotzailatzat hartuz eraikinaren altuera desberdinetan.

Oharra: kanpoaldean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaierara neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

F taula. Alboetako (*) lokaletara igarotako zaraten muga-balioak, bai egon dauden jarduerengatik bai berriengatik

Alboko lokalaren erabilera	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L _{K,d}	L _{K,e}	L _{K,n}
Bizilekuzkoa	Egongelak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Administratiboa eta bulegoetakoa	Bulego profesionala	35	35	35

	Bulegoak	40	40	40
Osasungintzakoa	Egongelak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Hezkuntza- edo kultura- erabilera	Ikasgelak	35	35	35
	Irakurketa-gelak	30	30	30

(*) Albokotzat hartuko dira lokal bi, igorle eta hartzailearen artean kanpoaldetik zaratarik ez denean transmititzen.

G taula. Egon dauden jarduerak eta berriek alboetako (*) lokaletara igorritako zaraten muga-balioak.

Alboko lokalaren erabilera	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L_{Amaxd}	L_{Amaxe}	L_{Amaxn}
Bizilekuzkoa	Egongela	50	50	40
	Logelak	45	45	35
Administratiboa eta bulegoetakoa	Bulegoak	45	45	45
Osasungintzakoa	Egongelak	50	50	50
	Logelak	45	45	35
Hezkuntza- edo kultura- erabilera	Ikasgelak	45	45	45
	Irakurketa-gelak	40	40	40

(*) Albokotzat hartuko dira lokal bi, igorle eta hartzailearen artean kanpoaldetik zaratarik ez denean transmititzen.

30. artikulua.- Jarduera berrietarako soinu-isolamenduaren indizea

1. Zarata sor dezaketen jarduera berri guztiek, bizitegirako diren lokalengandik ondoko taulan deskribatzen diren isolamendu indizeak eduki beharko dituzte, inpaktu soinuaren isolatzea 40 baino baxuagoa ezin izatearen kalterik gabe.
2. . Ondorio hauetarako, jarduera berrizat hartuko dira ondoko egoeraren baten dauden guztiak:
 - a) Nahitaezko lizentzia, baimena, aurre komunikazioa edo adierazpen arduratsua urriaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua indarrean sartu ostean eskatu dutenak.

b) Bizitegirako hiri lurzoruko jarduerak, alboetako lokalei zarata edo dardarak sortarazteko gaitasuna parametro bat edo gehiagotan handi dezaketen jarduketa egin beharra duen gela edo lokalen bat berriztatzen edo aldatzen dutenean.

EMISIO ZARATATSUEN GEHIENEZKO BALOREAK. JARDUEREN GUTXIENEZKO ISOLAMENDU INDIZEAK, BIZITEGI ERABILEREI DAGOKIONEZ:

Jardueraren deskribapena		Soinu- igorpenaren muga (dBA)	Funtzionatze ordutegia	Aireko zarataren gutxieneko isolamendua ($D_{n,T,A}$)
Ostalaritza, aisia eta aisialdia	Tabernak eta jatetxeak	75	Egunez eta arratsaldez	60
	Tabernak eta jatetxeak	75	Gauetz	65
	Taberna berezia	90	Egunez, arratsaldez eta gauetz	70
	Diskoteka	100	Egunez, arratsaldez eta gauetz	75
Automozio tailerrak	Tailerrak	--*	Egunez eta arratsaldez	--*
Ikastegiak eta kirol-zentroa	Ikastegia	75	Egunez eta arratsaldez	60
	Irakaskuntza berezietako akademia	90	Egunez eta arratsaldez	65
	Irakaskuntza zaratatsuetako akademia	100	Egunez eta arratsaldez	70
	Gauetzko irakaskuntza akademia	100	Gauetz	75
	Musikarik gabeko gimnasio eta kirol- zentroak	--*	Egunez eta arratsaldez	-- *
	Musikadun gimnasio eta kirol-	90	Egunez eta arratsaldez	65

	zentroak			
	Musikadun gimnasio eta kirol-zentroak	90	Egunez, arratsaldez eta gauez	70
Dendak eta biltegiak	Irrati, TB edo hari musikala duten komertzioak	75	Egunez eta arratsaldez	60
	Musika duten komertzioak	90	Egunez eta arratsaldez	65
	Hipermerkatuak	--*	Egunez eta arratsaldez	--*
Eraldatzeko industriak eta komertzioak	Tanatorioak, errausketalabeak, garbitegiak, okindegiak, arrandegiak, harategiak, aroztegiak, inprimategiak, albaitaritzaklinikak, txakurrak zaintzeko tokiak, lantegiak eta tailerrak eta maneia duten biltegiak.	--*	Egunez eta arratsaldez	--*
	Tanatorioak, errausketalabeak, garbitegiak, okindegiak, arrandegiak, harategiak, aroztegiak, inprimategiak, albaitaritzaklinikak, txakurrak zaintzeko tokiak, lantegiak eta tailerrak eta maneia duten biltegiak.	--*	Egunez, arratsaldez eta gauez	--*
Kultur-, giza- edo erlijio-lokalak	Kultur- lokala	75	Egunez eta arratsaldez	60
	Kultura-lokal zaratatsua	90	Egunez eta arratsaldez	65

Oharra: Taulan lotutako daturik ez dutenentzako, jardueraren sustatzailea izango da aireko zaratarako gutxieneko isolamendu maila zehaztuko duena, 29. Artikuluko F eta G tauletan dakarrena betetzen dela bermatzen duen soinu igorpen mugaren arabera.

2. Aurreko taulak erreferentzia egiten dion soinu igorpenen mugak, estandarizatutako soinu presioaren batzbesteko mailaren definizioari jaramon eginez, A $L_{A,T}$ ponderatuta, HR Zaratengandik Babesteko Oinarrizko Dokumentuaren A Eranskinan finkatzen den moduan.

3. Jardueraren bat aurreko baten ere ezin bada sailkatu, bere ezaugarrien arabera antzekoena denean sartuko da.

31. artikulua.- Ebaluazio prozedurak.

1. Neurketa prozedurak, baita balizko zuzenketa eta zigorrak ere, zarata mota eta iraupenaren arabera, Ordenantza honen II. eranskinean jasotzen dira.

2. Soinu-mailen neurketak ondoko zehaztasunak betetzen dituzten sonometroak erabiliz egingo dira: urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 30. artikulukoa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokiena. Era berean, beste ekipo batzuk erabiltzen badira, Batzorde horren ezaugarriei erantzun beharko diete.

32. artikulua.- Ordutegiak.

1. Kanpoaldean zein barrualdean soinu-mailen mugak aplikatzean, eguna hiru zatitan banatuko da:

- Eguna: 07:00etatik 19:00etara.
- Arratsaldea: 19:00etatik 22:00etara.
- Gaua: 22:00etatik 7:00etara.

2. Larunbat, jai egun eta jai bezperetan, bizileku erabilera duen hiri-lurreko jardueretarako, arratsaldeko ordutegia 23:00ak arte luzatuko da eta egun, larunbat eta jai egunetan eguna ez da 09:00ak arte hasiko.

33. artikulua.- Lokalen soinu-trataera.

1. Aire zarata sortarazten duten jardueri soinu- tratamenduak egin beharko zaie zoru, horma eta sabaietan, sortarazten duten zarata espektroen arabera, horrela ordenantza honetan aurreikusita dauden eskakizunak bete ditzaten.

2. Egiturazko edo kolpezko zarata sortarazten duten jarduerak mota horretako transmisioak ezabatuko dituen zoru flotagarria jarriko dute (haurtzaindegi, gimnasio, tailer, biltegiak...).

Eta 33. artikuluan ageri direnak edo aipatutako igorpen horiek desagertzea lortuko duen eta udalari emandako agirietan edo proiektuan arrazoitutako beste edozein neurri.

3. Zarata edo dardara sortarazten duten makinak dardaren aurkako elementu malguetan jarri beharko dira, bide solidotik zarata transmisioa ezabatzeko. <10/>.

4. Jardueren zuzkiduratzat hartuko diren instalazioen (klimatizazio, hotz sortzaile, aireztapen, xurgatzaile, fluidoentzako bideetako instalazioak) funtzionamendua Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzetara egokitu beharko da, aplikatu daitezkeen bestelako araudiak kaltetu gabe.

34. artikulua.- Soinu-maila mugatzen duten unitateak.

Udal agintaritzak, beharrezko baderitzi, soinu-maila mugatzeko elementuak jartzeko agindu ahal izango du, igorpen mugak betetzen direla bermatzeko helburuarekin.

35. artikulua.- Zamalanak

1. Hiriko edo/eta hiriko gunetara afektazioa duten industria gunetako bide publikoetan, merkantzien zamalanak, kutxa, edukiontzi, eraikuntzako material eta antzekoak erabiltzea gauzez eta arratsaldez (07:00ak eta 22:00ak artean) baino ezin izango da egin, ez bada Udalak espresuki baimena ematen duela. Honek, frogatutako arrazoi bidez, jarduera eta eremu jakinetarako ordutegi desberdinak ezarri ahal izango ditu.

2. Merkantzien zamalanak egitean, langileek talka zuzenak ez egiteko arreta berezia jarriko dute, baita mugitzeko erabiltzen dituzten gailuek (eskorga, palet eta abar) ibilbidean sortzen duten zarata eta dardara ekiditeko.

3. Holako lanek sor dezaketen eragozpenak ahalik eta gehien txikitzeko, Udalak dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu ahal izango du, eta zehazki, behar beharrezkoa izango da gurpil pneumatikoak (edo bestelakoak) dituzten garraiorako baliabideak erabiltzea, ibilbideak dirauen bitartean zarata txikitzeko.

36. artikulua.- Dardarak neurtzea.

Dardaren maila zehaztea ISO-2631-2 arauak ezarritakoarekin bat etorriz egingo da. Neurtuko denaren tamaina, azelerazio eraginkorra 3 ardatzetan konbinatuta egingo da, eta m/s 2-tan adieraziko da. Horretarako II. eranskinean ageri diren oinarri-kurbak hartuko dira kontuan.

37. artikulua. Dardaren transmisioa.

1. Jardueren garapen arrunta nahastuko duten dardarak igortzea eta transmititzea ekidin behar da.. Eraikinen barruan pertsonen ongizatea zaintzeko helburuarekin, ezin izango da 11. artikuluko C taulan dakarren dardaren transmisioa igaro.

38. artikulua.- Tresneria ainguratzea eta dardaren aurkako bestelako neurriak.

1. Ez da baimentzen tresneria ezta beronen euskarriak edo edozein atal mugikor zuzenean ainguratzea erdiko horma, sabai edo lokal, zutabe eta egitura orokorretako banaketa forjaketei. Edozein kasutan, egokiak diren dardaren kontrako elementuak jarri beharko dira.

2. Abiarazte gogorra duten makina handiak, kolpe edo talka zakarrekin lan egiten dutenak eta txandakako mugimenduak dituzten osagaiak dituztenak, lurzoru sendoan bakoitza bere inertzia bankadan ainguratuta egon beharko dira eta eraikinaren egituratik eta lokalaren lurzorutik isolatuta dardarak gutxitzeko materialen bitartez.

3. Isurki edo gasak indarrez igarotzen diren hodiekin, mugimenduan dauden osagaiak dituzten tresneriarekin zuzenean lotuta daudenak, makina horietan sortutako dardaren transmisioa ekidindo duten banaketa elementuak edukiko dituzte; hodian brida eta euskarriek dardaren aurkako osagaiak edukiko dituzte eta hodiak sartzeko hormetan egin ohi diren zuloak dardara gutxitzeko materialez beteko dira.

39. artikulua.- Ur zirkuituak.

Ur zirkuituetan “golpe de ariete”rik ez gertatzea zainduko da eta balbula eta txorroten antolaketa eta sekzioak gastu nominaletarako isurkiek modu laminarrean igarotzeko modukoak izan beharko dira.

II. KAPITULUA.- JARDUERA EKONOMIKOETAN ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA

40. artikulua.- Jarduera Lizentzira lotutako jardueri eskatutako baldintzak

Zarata edo dardarak sor ditzaketen Jarduera Lizentziari lotuta dauden sailkatutako jarduerak dagokien proiektuan zera gehituko dute:

- a) Zarata sor dezaketen elementu guztien identifikazio eta deskripzioa (makineria, megafonia, jolas-jarduerak eta abar).
 - Zarata motaren deskripzioa: Jarraitua, tonu garbiak dituena, airekoa, egiturako, pizgarria,...
 - Funtzionamendu karga edo moduak, ordutegiak, prozesuak deskribatzea.
 - Igorpen soinu-mailak (posible bada frekuentzia bandetan),neurri errealak, egilearen datuak, edo teknikari proiektugilearen bibliografia eta iritziak aurkeztuta, behar bezala arrazoituta.
- b) Lokalaren deskripzioa zarata- iturri bakoitzaren kokapena azalduz oin plano batean.
- c) Eragindako lokal edo erabilerak dituen sekzio plano edo krokisa.(esparru hartzailearen erabilera zein den ez bada identifikatzen, logela dela suposatuko da).
- d) Jabearen, obrako zuzendariaren edo neurri zuzentzaileak ezartzeaz arduratzen denaren izena eta telefonoa.
- e) Ahal denean, jatorrian zarata edo/eta dardara kentzeko proposatutako sistema zuzentzaileak edo, besterik ezean, igorpenean. Hauek plano, katalogo, memoria eta abarren bidez deskribatuz eta eraginkortasuna kalkulaturik edo egiaztatuta dauden antzeko irtenbideak ekarriz.
- f) Alboetako lokaletan betetzearen arrazoitzea:
 - L_K maila jarraitu baliokidea, lokalen barruan.
 - Eragindako lokalen barruan L_{Amax} gehienezko maila.
 - Kasurik txarrean eragindako lokalen barruan L_{aw} dardara mailen adierazlea.
- g) Kanpoaldean betetzearen arrazoitzea:
 - Gehienezko immisio muga balioak, L_{Amax} lurretik 2 metroko garaieran eta eraikinaren altuera guztietan leihodun fatxaden kanpoaldean.

- L_K epean, egun, arratsalde, gau, immisio zarataren muga balioak lurretik 2 metroko garaieran eta eraikinaren altuera guztietan leihodun fatxaden kanpoaldean.
- h) Isolamendua betetzearen arrazoitzea:
- D_nT, A aireko zarataren isolamendua, jarduera dagoen esparruaren eta esparru hartzailearen artean.
 - $L' nT, w$ kolpe-zarataren maila, jarduera dagoen esparruaren eta esparru hartzailearen artean.
- i) Frekuentzia baxuko osagaiak dituzten frekuentzia tonalak egotea eta osagai pizgarririk dagoen gela- hartzaile(et)an.
- j) Neurri zuzentzaileen diseinua eta proposamena
- k) Neurri zuzentzaileetan mugatzaileak ezartzea aurreikusten bada, hauek zehatz deskribatu beharko dira, eraginkortasun maila eta balizko manipulazioak antzemateko moduak arrazoituz.
- l) Egin nahi den ezarpenaren Hirigintzako Justifikazioa Ordenantza honetako 29. artikuluan adierazitako mailak betetzearekiko, alboetako eta /edo hurbileneko erabilerei dagokienez.

2. Lizentzia ematean, jarduerak Udalarik kreditatutako erakunde batek egindako neurketa eman diezaion epea ezarriko da, aurreko atalean agindutakoa betetzen denaren egiaztagiri.

41. artikulua.- Aurretzako Komunikazioa behar duten jardueren eskatutako baldintzak.

1. Aurretzako komunikazioa egin behar duten jardueren, beronekin batera, 40. artikuluan aipatutakoen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte.

2. Zabaltzen denetik 6 hilabeteko epean, kreditatutako erakundeak egindako neurketa ekarriko dute. Berton, aireko eta egiturako zarataren isolamenduaren neurketa ere egon beharko da, dauden soinu-iturrietako igorpen eta immisio mailak ere barne hartuta.

42. artikulua.- Kalitate kontrola neurri zuzentzaileetan.

Udaleko ikuskaritza zerbitzuek, euren ustez egokiak diren beste ikuskapen egin ahal izango dituzte, neurri zuzentzaileak ondo ezartzen direla egiaztatzeko. Horretarako, gerora, bai exekuzioan eta baita horien instalazioan ere, erabili duten materialeen kalitatea zein den jakin ahal izateko egin beharreko neurketa, argazki eta abar eginez.

43. artikulua.- Ingurumen-inpaktuko ebaluazioei lotutako jarduerak.

Ingurumen-ebaluazioaren jardunbidearen pean dauden plan, programa eta egitasmoek abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearekin edo ordezkatzan duen arau eta aplikagarria den gainontzeko legediarekin bat, Ordenantza honetan ezarritako mugak betetzea bermatu beharko dute.

44. artikulua.- Soinu- konfortaren aplikagarritasuna.

Jardueren edo zarata sortzen duten iturrien ardura duten pertsonak igorpen- iturrietan ahalik eta zarata gutxien sortu beharko dute edo igorpenean txikitu, ekoizpen prozesuetan eta isolatze sistemetan teknologiarik aurreratuenak kontuan izanik, helburu moduan hartzaileari ahalik eta soinu energia gutxien heltzea izanik.

45. artikulua.- Jarduerak badaezpada gelditzea.

1. Baimena ematea, txostena egitea edo zigorrak ezartzeko eskumena Udalari dagokionean, Alkatetzak edo dagokion zinegotzigo delegatuak, ondorengo edozein arrazoigatik, osotasunean edo zati baten, eraikitzen dagoen edo ustiatzen dagoen edozein jarduera gelditu ahal izango ditu, badaezpada.

- a) Eskatu den lizentziaren proiektuan datuak ezkutatzea, faltsutzea edo erabiltzen gaiztoa egitea.
- b) Proiektua betetzeko ezarri diren baldintzak ez betetzea edo urratzea.
- c) Ingurumenean kalte larriak edo konponezinak edo pertsona edo ondasunetan berehalako arriskuak egon daitezkeenaren susmoa dagoenean, inguruabar erabakigarriak desagertzen ez diren bitartean, arriskuak baloratu edo gutxitzeko beharrezko neurriak har daitezkeelarik.
- d) Ordenantza honetan arau-hauste moduan tipifikatutako edozein ekintzaren balizko eginkizuna.

2. Baimena eman, txostena egin edo ahalmen zigortzailea beste Administrazio bati dagokionean, Alkatetzak edo horrela dagokion zinegotzigo delegatuak, premia bereziengatik arrazoiengatik, aurreko paragrafoan aipatutako edozein arrazoi tartean egongo balitz jardueraren badaezpadako gelditzea erabaki ahal izango luke.

Behin erabaki hau hartuta, eskumena duen atalari berehala jakinaraziko zaio eta honek erabakiko du gelditze hori mantentzea edo kentzea.

3. Jarduera baten titularrak, jarduera hori funtzionatzen dagoenean zein aldi baterako etenean edo behin betiko itxita dagoenean, ezarri zaion neurri zuzentzailearen bat hartzeari ezezkoa emango balio, aurrez ohartarazita, ekintza egiteko eskatu dion aginteak ordezkot moduan exekutatu ahal izango du eta titularraren gain izango dira eratorritako gastuak. Kostu hauek premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

46. artikulua.- Kautelazko neurriak hartzea

1. Salbuespen modura, eta zigor espedientea zabaldu baino lehen, Alkatetza-Lehendakaritzak edo, dagokionean, Zinegotzigo Delegatuak, Ordenantza honetan arauhauste moduan tipifikatuta dagoen edozein ekintzaren ustezko erantzuleri ondoko kautelazko neurriak ezartzea erabaki edo ebatzi ahal izango dute, baina ez dute izaera zigortzailerik izango:

- a) Lan edo jarduerak etetea.
- b) Tresnak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea.
- c) Ingurumen- kaltea zabaltzea eragotziko duen beste edozein neurri, segurtasunezko, kontrolezko edo zuzentzailea.

47. artikulua.- Lokal eta jardueretara sartzea eta ikuskatzea

1. Udalerriko ingurumenean kalteak sor ditzakeen edozein jarduera edo instalazioren kontrol eta ikuskapena egiteko ahaleginean, udal agintariak edota teknikari baimenduak nahi beste aldiz sartu ahal izango dira lokal eta lekuetara, eta jabe, titular edo erabiltzaileak, sartzeko baimena ematera behartuta daude.

2. Sarrera ukatu edo beharrezko egiaztapenak egiten utziko ez balitz, egon daitezkeen administrazio zigorrak kontuan hartu gabe, erabileraren etetea agindu ahal izango da, baita Ordenantza honetan araututako kutsadura darion lokal edo instalazioa zigiluz ixtea ere, eta beharrezkoa balitz epailearen baimena lortzearen kalterik gabe.

III. KAPITULUA.- INGURUMEN JARDUKETETARAKO BALIABIDEAK

48. artikulua.- Exekuzio subsidiarioengatiko tasa eta ordainarazpenak.

1. Udalak, egindako ikuskatze zerbitzuen kostua berauen onuradun edo erabiltzaileei ordinaraziko dizkiete.

2. Ondorio hori, horrela aurreikusita dagoenean, Udalak Kudeaketa eta Diru-bilketako Ordenantza Fiskal Orokorrean onartutako tasen bidez gauzatuko da.

3. Udalak neurri zuzentzaileak betearazi edo ordezko neurketarik egin behar duenean, arduradunek ordaindu beharko dituzte neurketok, gerta litezkeen zigor eta kalte-ordainen kalteri gabe.

IV. idazpurua.- DARDARA ETA SOINU-KUTSADURA BESTE ZARATA GUNE BATZUK

I. KAPITULUA. ERAIKINAREN BARRUALDEKO AUZOTARREN EKINTZAK

49. artikulua.- Komunitateko zaratak

1. Zaratak bide publikoan eta jendetza egoten den guneetan (plaza, parke, eta abar...) sortzea, herritarren arteko bizikidetzak eta besteekiko errespetuak ezartzen dituen mugen barruan mantenduko da, 29. artikuluko F taulan ezartzen direnak eta artikuluko horretan bertan adierazten diren ordutegietarako.

2. Aurreko puntuan ezarritako agindua bereziki atsedeneko orduetan sortutako zaratei dagokie (gauezko ordutegia, 22:00-07:00), hala nola, giza ahotsa edo gizakien jardun zuzena edo abereek sortutako zaratak.

50. artikulua.- Betebeharrak

1. Gaueko atsedean hartzeko orduetan sortzen diren zaratei dagokienez, ez da ondorengorik egin beharko:

- a) Oihu edo garrasirik egin.
- b) Auzokoei eragozpenak sor liezazkien etxeko konponketa eta lanak egin.
- c) Beste edozein soinu-tresna erabiltzea iragarpen, erakargarri, ohar, distrakzio edo abarretarako.
- d) Lokal edo etxe partikularretan pertsona kopuruari, musikaren bolumenari, dantzari dagokionez onargarria denetik gorako jairik egin.
- e) Gaueko ordutegian musika-entsegu edo emanaldirik egin.
- f) Eta orokorrean, auzokoen atsedena etengo duten zarata edo/eta dardararik eragin.

2.- Etxe-abereak (edo bestelako animaliak) dituzten pertsonak behartuta daude abere hauen portaeratik auzotarren lasaitasuna aztoraz ez dadin neurriak hartzera. Zentzu honetan, egiten duten soinuekin auzokoei eragozpenak sortzen dizkieten animaliak ezin izango dira utzi patio, terraza, galeria, balkoi edo bestelako gune irekietan, ezta merkataritza- eta/edo industria-lokaletan.

3.- Bide publikoan eta jendea ibiltzen den tokietan ezin izango da erabili soinu-erreprodukziozko ekipo edo musika tresnarik, iragartzeko mezuak zabaldu edo zarata eta/edo dardarak sortzen dituzten ekintzarik. Salbuespen moduan, berariaz baimentzen dena eta funtzionatzeko maila eta baldintzak ezartzen direnean.

Bide publikoan ezartzen dituzten haur-jolasek eta haurrentzako dibertimenduzko makinek udalaren baimena eduki beharko dute, eta ordutegi eta emisio-mailei dagokienez baimen horretan zehaztutako mailetan jardutera murriztu beharko dute.

51. artikulua.- Auzokoen arteko salaketak

1. Auzokoen arteko salaketak, juridikoki Jabetza Horizontaleko legeriak araupetzen ditu.

2. Salaketa egotekotan, Udalak dituen neurketa eta probak eman ahal izango dizkio interesatuei, ikuskatze eta/edo neurketa zerbitzuen kostuak berauen onuradun edo erabiltzaileei igorritz, 51. artikuluan ezarritako tasarekin bat etorritz.

52. artikulua.- Gazteen loiak

1. Gazteen lokalek, 2014ko uztailaren 18an Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak onartutako "Bermeoko gazteen lokalen alkarbizitzarako gida eta protokoloa"n ezarritakoa bete beharko dute. Gida honetan aipaturiko lokal horiek bete beharko dituzten oinarrizko baldintzak onartu ziren (erregistroa, gazte lokalek bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak), elkarbizitzarako gutxieneko baldintzak (zarata eta ordutegiak) eta lokalak behar den bezala funtziona dezan gomendio batzuk.

2. Hala ere, soinu-kutsadurari dagokionez, alboko etxebizitzetara igorritako zaratari dagokionez ondorengo mugak ez dira gainditu beharko:

- 07:00etatik 22:00etara: 35dBA
- 22:00etatik 07:00etara: 30 dBA
- 22:00etatik aurrera musika eta aparatuen bolumena jaitsi egin beharko da, eta itzalita egon beharko dira 23:00etatik hurrengo eguneko 10:00ak arte.
- Jaietan, musika eta aparatuen bolumena 24:00etara arte luzatu ahal izango da.
- Ordutegia: Aste barruan lokala itxita eta jardun barik egon beharko da 23:00etatik aurrera. Ostiral eta larunbatetan ordutegia 24:00ak arte luzatuko da. Jaietan ordutegia 02:00ak arte luzatu ahal izango da.

Zaraten gaineko gomendioak: Zarata da auzokoen artean arazorik gehien sortzen duen arrazoia. Horregatik, kontu berezia izan behar da zaratarik ez sortzean, bolumenari dagokionean zein egiten den orduari dagokionean. Egite honen inguruan zera gomendatzen da:

- o Telebista, musika aparatuak, bozgorailuak eta abar ate eta leihoetatik urruntzea.
- o Abesti, txistu, oihu eta abarrek sortutako zaratak ekiditea.
- o Pertsianak zabaldu eta ixten etengabe ibiltzearen zarata ekiditea.
- o Lokalaren kanpoaldean eta inguruan jendea biltzea ekiditea.
- o Lokalaren sarreran motordun ibilgailuekin gehiegizko zarata egitea ekiditea.

o Jendea sartu eta ateratzean sortzen den zaratarekin kontuz ibiltzea.

II. KAPITULUA:- ALARMA ETA SIRENEN ONDORIOZKO ZARATAK

53. artikulua.- Xedea.

1. Atal honek osasun, babes zibileko eta segurtasun publikoari atxikitako ibilgailuetan jarritako sirenen soinu-sistemen instalazio arautzea du helburu, euren funtzionamenduak sortaraz ditzakeen eragozpenak ahalik eta gehien murriztu ahal izateko, horrek euren eraginkortasunean eraginik izango gabe.

2. Ez da onartzen beste erabilera batzuetarako sirenen soinu-sistemen erabilerarik, larrialdi edo arrisku egoeretan izan ezik.

54. artikulua.- Alarma motak.

Kapitulu honen ondorioetarako, ondorengo alarma kategoriak zehaztuko dira:

- 1 taldea. Kanpoko ingurura igortzen dutenak, ibilgailuetan jarritakoak izan ezik.
- 2 taldea. Erabilera publiko edo konpartitua duten barruko girora igortzen dituztenak.
- 3 taldea. Soinu emisioa kontrol eta zainketarako bereziki aukeratutako lokaletan bakarrik izaten dutenek osatzen dute. Lokala pribatua zein helburu hori duten enpresa edota organismoarena izan daiteke.
- 4 taldea. Ibilgailuetan bidegabe sartzearen edo lapurretaren aurka ipinitakoak.

55. artikulua:- Titularren betebeharrak.

1. Alarma eta sirenen sistemen titularrak behartuta daude jarraian aipatzen diren funtzionatzeko arauak betetzera edo erabiltzeko ardura duen langilegoari betearaztera:

- a. Alarma sistemek egoera ezin hobean egon beharko dute doitze eta funtzionamenduari dagokionez, alarmok arrazoi justifikaezinen edo alarma instalatzea eragin zuten arrazoez aparteko arrazoi batzuen eraginez aktiba ez daitezen.
- b. Galarazita dago nork bere borondatez alarma sistemak piztea, instalazioen

froga eta entseguak egiteko ez denean.

2. Froga horiek salbuespenekoak izan ahal dira, alarma ipinitakoan ondo dabilela egiaztatzeke egiten badira eta ohikoak edo funtzionamendua egiaztatzekeak.
3. Bi kasu horietan Udaltzaingoari jakinarazi beharko zaio aurretiaz eta frogak 11:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 20:00etara egingo dira eta gehienez jota bost minutuko iraupena izango dute. Hilean ezin izango da egin ohiko egiaztapen bat baino gehiago.

56. artikulua:- Mantentzea.

1. Alarma sistemen titularrak behartuta daude prebentziozko ikuskapenak egitera, eta ikuskapen horiek teknikari kualifikatuek egingo dituzte.
2. Ikuskapen horiek urtero egingo dira eta ikuskapen biren artean ezin izango dira hamalau hilabete baino gehiago igaro.

57. artikulua:- Alarmetarako betebeharrak.

1. Elementu igorlearen arabera, alarma monotonal edo bitonalak baino ez dira baimentzen.
2. 1 taldeko alarmek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:
 - a) Instalazioak ezin izango du eraikinaren kanpoko aldearen itxura hondatu.
 - b) Soinu sistemaren funtzionamendu etengabeak gehienez ere 60 segundo iraungo du eta inolaz ere ezin izango du denbora hori gainditu.
 - c) Soinu alarmaren seinalea gehienez bi aldiz errepikatzen duten sistemak baimentzen dira. Seinaleen arteko isilune laburrenak 30 segundokoak izango dira eta luzeenak 60 segundokoak, lehenago ez bada deskonektatzen.
 - d) Behin ziklo osoa amaituta sistema ez bada desaktibatu, ezin izango da berriaz abian jarri, kasu hauetan argi-distirak baimenduko direlarik.
 - e) Baimendutako gehienezko soinu-maila 85 dBAkoa izango da, 3 metrora neurtuta eta soinua gehien igortzen den norabidean.

3. 2 mailako alarmek aurreko taldekoen baldintza berak beteko dituzte, baimendutako gehienezko soinu-mailarena izan ezik, 70 dBA izango delarik.

4. 3 taldeko alarmek ez dute ondorengo muga baino edukiko: bere funtzionamenduagatik inguruko lokalei igortzen dizkieten soinu-mailek, ordenantza honetan baimendutako gehienezko balioak ez dituztela gaituzte ziurtatzea.

5. 4 taldeko alarmek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Baimendutako gehienezko soinu-maila 85 dBAkoa izango da, 3 metrora neurtuta eta soinua gehien igortzen den norabidean.
- b) Soinu sistemaren funtzionamendu etengabeak gehienez ere 60 segundo iraungo du eta inolaz ere ezin izango du denbora hori gainditu.
- c) Baimenduko diren sistemak soinu alarmaren seinalea gehienez bi aldiz errepikatzen dutenak izango dira. Seinaleen arteko isilune laburrenak 30 segundokoak izango dira eta luzeenak 60 segundokoak, arinago ez bada deskonektatzen.
- d) Behin ziklo osoa amaituta sistema ez bada desaktibatu, ezin izango da berriz abian jarri, kasu hauetan argi bristadak baimenduko direlarik. Aitzitik, eta zehapen espedientea zabaltzea kontuan hartu gabe, Udaltzaingoak Udal Biltegira eraman ahal izango du ibilgailua.

58. artikulua.- Baimendutako sirenak.

1. Sirenetan sistema anizkunak erabiltzea baimenduta dago (tonu bakarrekoak, bi tonukoak eta frekuentzialak).

2. Argi-distirak dituzten abisuko sistema anizkunek horiek bakarka edo multzoan funtzionatzea ahalbidetu beharko dute.

3. Sirenetan gehienez baimenduta dagoen soinu-maila 95dBA-koa izango da, berau instalatuta duen ibilgailutik 7,5 metrora eta gehien igortzen duen norabidean neurtuko dute.

4. 105 dBA-rainoko soinu-mailak baimenduta daude baldin eta sistemak emisio-maila

aldatzeko prozedurarik badauka, hori zuzenean egongo da konektatuta ibilgailuaren abiadura-neurgailura, horren bidez maila horiek ibilgailuaren abiadura 80 km/orduko baino altuago denean bakarrik emango ditu eta maila normaletara itzuliko da abiadura balio horretatik jaitsi ondoren.

59. artikulua.- Sirenak erabiltzea debekatzea.

1. Asistentzia-anbulantziek ohiko joan-etorrietan eta basera itzultzeko ibilbideetan sirenak erabiltzea debekatuta dago.
2. Asistentziazkoak ez diren anbulantziek ezin izango dituzte sirenak erabili, argi-abisuak bakarrik erabili ahal izango dituzte.

60. artikulua.- Alarmen administrazio-baimena.

1. 1, 2 eta 3 taldeetako alarmak baimentzeko interesdunek eskabide-eskariarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:
 - a) Instalazioa egingo den lokal edo ondasunaren titularitatearen egiaztageria.
 - b) Deskonexio kontrolaren arduradunaren izena, helbidea eta telefonoa.
2. Instalazioko akatsengatik, okerreko eragintzagatik edo baimenean aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoirengatik, ez ohiko modu baten ari diren alarma edo sirenak geldiarazten direla bermatzeko Udalak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu,
3. Jabea ez dagoenean edo gelditzeko ardura duena ez dagoenean Udalak inguruko nahasmenduagatik alarma ezeztatu ahal izango du ordezeko esku-hartze bidez.

III. KAPITULUA:-MOTORDUN IBILGAILUEK SORTUTAKO SOINU KUTSADURA

61. artikulua.Ibilgailuen ezaugarriak

Trakzio mekanikodun ibilgailu guztiak egoera onean eduki beharko dituzte zarata sor dezaketen elementuak eta, bereziki, ihes-hodiko isilgailua.

62. artikulua.- Salbuespenak

1. Motordun ibilgailuetako gidariek, polizia, suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuetara zuzendutakoak izan ezik, ez dituzte ibilgailuko soinu-tresnak erabiliko udal-mugar-tean eguneko 24 orduetan, bide publikoetako galtzadetan gertatutako edozein zailtasun edo ezintasunen bat dagoenean ere.

2. Soinu-ohartarazleak bat-batean erabiltzea, istripua egon daitekeeneko berehalako arriskua dagoeneko kasu berezietan eta beste bideren bat erabilita ekidin ezin direnetan edo larrialdi gorena dagoen kasuetan baino ez da baimenduko.

63. artikulua.- Mugak.

Zirkulazioan dauden ibilgailu automobilen zarata igortzen maila, ondorengo taulan zehaztutakoa izango da:

IBILGAILUETAN GEHIENEZ ONAR DAITEZKEEN SOINU-MAILAK (92/97/CEE zuzentarauan eta 78/1015/CEE zuzentarauan ezarritakoaren arabera neurtuak)	
<u>IBILGAILU MOTA</u>	dB(A)
1. NEKAZARITZAKO TRAKTOREAK	
1.1. 200 CVrainoko indarra dutenak	90
1.2. 200 CV baino gehiagoko indarra dutenak	93
2. 50 CM³ BAINO GUTXIAGOKO ZILINDRADA DUTEN IBILGAILU ETA ZIKLOMOTORRAK	80
3. BESTE IBILGAILU BATZUK	
3.1. Bi gurpilekoak (*)	
3.1.1. 50 cm ³ tik gorako zilindradakoak 80 cm ³ tarainokoak	77
3.1.2. 80 cm ³ tik gorako zilindradakoak	80

175 cm ³ tarainokoak	
3.1.3. 175 zilindratik gorakoak	82
3.2. Hiru gurpilekoak	
3.2.1. 50 cm ³ tik gorako zilindradakoak ez direnak	87
3.3. Lau gurpil edo gehiagokoak	
3.3.1. Bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak, gidaria barne gehienez 9 eserlekukoak	77
3.3.2. Bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak, 9 eserlekuko baino gehiagokoak eta 3.5 tona baino M.M.A. dutenak:	79-83 (kWren arabera)
3.4. Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak:	
3.4.1. Tona 2 baino gutxiagoko M.M.A. daukatenak.	75
3.4.2. 2-3'5 tona arteko M.M.A. daukatenak.	79
3.4.3. 3,5 tona baino gehiagoko M.M.A. daukatenak	81-85 (kWren arabera)

64. artikulua.- Debekuak

1. Bide publikoan dabilzan motordun ibilgailu eta ziklomotor guztiek dagokien isilgailua izan beharko dute, behar den bezala homologatuta eta eraginkor.
2. Beraz, debekatuta dago: "ihes-hodi librea" delakoa eta euren motorrek kanporatutako gasak, eraginkorra den isilgailua zeharkatu beharrean, hondatutako, ezegokia den edo osorik ez dagoen bat, edo baita durunda egiten duen hoditik ere, zeharkatuz ateratzen badira, baimendutako soinu-maila gaindituz.
3. Debekatuta dago daramaten zamagatik araututako zarata mugak gainditzen dituzten ibilgailuek zirkulatzea.

4. Bide publikoan zarata gogaikarriak sortzen dituzten ibilgailuen motorren arrazoirik gabeko azeleratzeak debekatu egiten dira.

5. Debekatuta dago barrutik kanpora soinua gainontzeko gidari eta oinezkoek entzuteko moduan igortzen duten musika edo soinu aparatuak ibiltzea ibilgailuetan.

6. Debekatuta dago leihoak zabalik direla, ibilgailuetako musika aparatuak bolumen handian edukitzea.

65. artikulua.- Kontrol-bideak

1. Baimendutako gehienezko maila igarotzen duen edozein ibilgailuren jabearen kontrako salaketa egingo du Udaltzaingoak, eta ibilgailua aztertu eta ikuskatzeko adierazten zaion leku eta orduan ibilgailua agertzeko derrigortasuna adieraziko dio. Salaketa egiten den egunetik 7 egunen barruan ibilgailua erakusten ez bada, jabearen adostasuna dagoela ulertuko da.

2. Kautelazko neurri moduan, eskudun agentearen ustez baimendutako zarata mailen ez-betetzea agerikoa eta nabarmena denean, honek ibilgailua geratu eta baztertu ahal izango du eta udal biltegira eraman ikuska eta azter dezaten. Ekintza hori, araua hautsi duenari jakinarazita, gehienezko 24 orduko epean egin beharko da.

3. Ibilgailua aztertuta, baimendutako soinu-neurriak ez balitu gaindituko, salaketa kendu egingo litzateke.

V. IDAZPURUA.- INGURUMEN DISZIPLINA

I. KAPITULUA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA

66. artikulua.- Zaintza, ikuskapen eta kontrol jarduera

1. Ikuskapen funtzioaren erabileran, langileriak zera ahal izango du:

a) Aurrez identifikatuta eta aurrez jakinarazi gabe, jarduera bat gauzatzen den

instalazio edo establezimenduetara sartu.

- b) Ordenantza hau betetzen dela egiaztatzeko beharrezkoak diren froga, ikerketa edo azterketak hasi.
- c) Ikuskatu beharreko jarduera edo instalazioak baimentzen dituen administrazio- agiriak eta informazioa eskatu.
- d) Beharrezkoak diren jarduketak egitea, egingo dituzten ikuskapen- funtzioak betetzeko.
- e) Ikuskatu behar den lekua bizilekua denean, edo titularraren edo bertan bizi den pertsonaren aurretiazko baimena behar denean, izaera horrekin lortuko da, edo epailearen baimena eskatuko da.

2. Ikuskapen funtzioak egiten dituztenek isiltasun profesionala betetzeko betekizuna daukate eta ez badute betetzen zigortu egingo dira, kasu bakoitzean aplika dakizkieken diziplinazko aginduen arabera.

67. artikulua.- Ikuskapen aktak.

1. Bisitak ofizioz edo aldeak eskatuta egingo dira, zarata edo dardaren ezaugarriak kontuan hartuz. Aurretiaz jakinarazi gabe egin ahal izango dira jardueren gauzatzean, eta horretarako igortzen duen iturriaren arduradunari zitazioa eginik egingo dira neurketa erlatiboak. Zarata subjektiboari dagozkion neurketak, zarata igortzen duen iturriaren titularrak jakin gabe egin ahal izango dira; azken kasu honetan, igortzen duen iturriaren arduradunari, berak jakin dezan, neurketa berri bat eskaini ahal izatearen kalterik gabe.

2. 70. artikuluan aipatutako langileek egindako bisita guztietan, dagokion Ikuskapen Akta egingo da. Bertan, tokia, data eta ordua jasoko dira, jarduketaren eta bere ordezkariaren identifikazio-datuak, ikuskapenean jasotako ekintzak eta zehazki egindako egiaztapen eta neurketak, eta sortutako arazoa edo ezarritako irtenbidea sakon ezagutzea ahalbidetuko duen edozein datu, egindako froga eta egiaztapenak eta berauen emaitzak, jarduten dauden teknikarien identifikazioa.

3. Aktak onestekoak, konpongarriak diren hutsunedunak edo ez betetzekoak izango dira eta bere aurrealdean inpugnatzeko neurriak jasoko dira. Parte hartzen duten alde guztiek sinatuko dute akta, egitearen ezezkoak eragin berdinak izango dituelarik eta kopia bat

lortzeko eskubide izango dute.

4. Konpongarriak diren hutsunedun aktek neurri zuzentzailea eta betetzeko epea jasoko dute.

5. Ordenantza honetan aurreikusitakoarekin bat gauzatutako aktetan, ikuskaritza egiten duen langileek adierazitako ekintzek balio frogagarria izango dute, interesatuek euren eskubide edo interesen defentsan adierazi edo ekar dezaketan frogan kalterik gabe.

68. artikulua.- Administrazioarekin elkarlana

1. Soinu igorleen titular eta/edo arduradunak diren pertsonak behartuta daude eskumena duen agintaritza eta bere agenteei azterketa, kontrol, neurketa eta euren funtzioak bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa jasotzeko lanak egiteko beharrezkoa den laguntza osoa ematera.

2. Salatzaileek eskumena duen agintaritzari, edo bere ordezkariari, beharrezko laguntza eskaini beharko diote dagokien ikuskatzeak egiteko (azterketa, kontrol, neurketa eta abar), salatutako arazoak egon diren tokirako sarrera utziz.

3. Salatzailearen aldetik laguntzarik ez badago Administrazioaren ikuskapen lanetan, ondorio moduan izango du, egin beharreko izapideak egin eta gero, prozedura amaitzea, administrazio prozedura orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz.

69. artikulua.- Salaketak

1. Edozein pertsona fisiko edo juridikok, Udalaren aurrean Ordenantza honetako aginduak hauts dezaketan iturri kutsatzaileak egotea sala dezake.

2. Salaketarako idatziak, araudi orokorrean eskatutako betekizunez gain, udal zerbitzuei egin beharreko egiaztatzea errazteko behar dituzten datuak izan beharko ditu.

3. Salatzailea, ausarkeriaz edo fede txarrez jarduten duenean, egin dezakeenaren ardurapean egongo da.

70. artikulua.- Ikuskatzaileak

1. Instalazioen ikuskapena eta egiaztapena egiten duen udal teknikariek, betetzen ari diren funtzioak egitean Agintearen Agente izaera izango dute eta identifikatu ostean eta aurretiaz esan gabe, Ordenantza honen xede diren instalazio eta jardueretara sartu ahal izango dira.

2. Ikuskapenak, neurketak eta abar egiten dituzten udal edo erakundeetako teknikariek, beharrezko trebakuntza teknikoa izan beharko dute. Horretarako, Udalak, neurri motaren eta berauen zehaztasuna kontuan izanda, kreditazio maila desberdinak zehaztu ahal izango ditu.

3. Euren egitekoan, aurreko atalak erreferentzia egiten dion langileria beharrezkoa ikusten duen pertsona adituek lagunduta joan ahal izango da, eta hauek administrazio-isiltasunaren arauetara lotuta egongo dira.

II. KAPITULUA.- LEGEZKOTASUNA BERREZARTZEA

71. artikulua.- Legezkontasuna berrezartzearen prozedura

1. Jardueren edo instalazioen funtzionamenduan edo kokapenean irregulartasunak edo hutsuneak antzemango balira, eskumena duen atalak beronen titularrari eskatuko dio hutsuneak zuzentzeko edo konpontzeko, hartu beharreko balizko neurrien izaerarekin bat datorren epean. Epe hau ezin izango da izan sei hilabete baino handiagoa, kasu bereziak edo salbuespenezkoak izan ezik eta behar bezala arrazoituta.

2. Aipatutako epea igarota, ikuskapen zerbitzuek zuzenketaren egiaztapena egingo dute. Agindutakoa behar bezala ez balitz bete izango, arau-hauste administratiboa egon den ala ez aztertuko da.

72. artikulua.- Neurri zuzentzaileak betetzea

1. Legezketasuna berraztertzekeo prozedurak espedientea artxibatzearekin konpondu ahal izango dira izapidetzean eskatutako akatsak zuzendu direla egiaztatzen bada edo eragozpenak edo prozedura zuzentzailearen arrazoa desagertu badira, edo Ordenantza honetan ezarritakoa betetzeko hartu beharreko neurriak hartzea aginduta.

2. Ezarritako epeak agortuta, eskatutako neurri zuzentzaileak hartu gabe, eta dagokien zigorrak kontuan hartu gabe, erabakia eman ahal izango da, aurretik entzunaldia emanda, legea betetzeko ondorengo neurriren bat ezarriz:

- a) Segidako isun hertsatzaileak ezarri, bakoitzaren zenbatekoak dagokion zigorraren zenbatekoaren %20 gaintitu ezin duelarik.
- b) Ordezko exekuzioa agintzea
- c) Eragindako kaltea kontuan harturik, igorritako zarata mailari, auzokoei egindako eragozpenei dagokienean, asaldura sortzen duen iturria unean bertan etetea xedatzea, dauden hutsuneak zuzendu arte.

3. Arau-hausleak ezarritako beharrezko neurri zuzentzaileak hartzera behartuta daude, ezartzen zaion zigor penala edo administratiboa kontuan hartu gabe.

4. Arau- hausteen preskripzioak ez du eraginik izango berregiteko betekizunean ezta sortutako kalte-galeren kalte-ordaineen.

III. KAPITULUA.- ZIGOR PROZEDURA

73. artikulua:- Arduradunak

1. Arduradunak

- a) Ordenantza honetako arauak haustearenak administrazio emakida, baimen edo lizentzia behar duten jarduerak gauzatzeagatik egiten direnean, titularra.
- b) Ibilgailuak erabiltzeagatik egindakoak, bere jabea edo horrela dagokionean, gidaria.
- c) Gainontzeko arau-hausteetan, asaldura sortzen duena edo ordezkapenez arduraduna dena.

2. Administrazio ardura, jausi daitekeen ardura penala eta ardura zibila kontuan hartu gabe izango da. Delitu edo hutsegitea izan daitekeen ekintza bat ikusten den bada, eskumena duen organo judizialari jakinaraziko zaio eta agintaritzaren judiziala gaia aztertzen ari den bitartean, administrazio-prozedura zehatzailea eten egingo da.

74. artikulua:- Zehapen-espeditenteak zabaltzea.

1. Udal teknikariek arau-haustea egon dela egiaztatuta, gai horretako udal arduradunari edo agintaritzari emango zaio dagokion txostena. Honek zehapen-espeditentea zabaltzea erabakiko du eta instruktorea Udaltzainburua izango da. Era berean, jokabide bera hartuko da interesaturen batek salaketa jarritz gero.

2. Zabaltzeko ekintza balizko arduradunari eta salatzaileari jakinaraziko zaie, balego, baita oinarri diren txosten edo txostenak ere. Hauetan ekintzaren deskribapena eta ustez hautsitako araua edo arauak deskribatuko dira baita ekintzan gertatzen diren egoerak ere, hamabost eguneko epean bere defentsarako egoki ikusten duen guztia argudia dezan eta gai honetarako egoki diren probak gehi ditzan.

3. Ikuskapen aktekin zehapen espeditenteak zabaltzeko ekintzat hartuko dira eurotan urratutako araua zein den adierazten bada, ezar daitekeen zigorra, alegazioak egiteko eta frogak aurkezteko aukera aurreikusten bada, espeditentearen instruktorea nor izango den adierazten bada, ezespiten erregimena adierazten bada eta prozesua ebazteko eskumena duen atala zein izango den adierazten bada.

75. artikulua:- Izapideak eta ebazpena.

Behin aurreko atalek erreferentzia egiten dioten izapidetze garaia amaituta, frogetarako aldia barne, ustezko arau-haustearen arduradunari jakinaraziko zaie espeditentearen instruktoreak emandako ebazpen-proposamena eta alegazioak egiteko hamabost eguneko epea dutela adieraziko zaie. Entzunaldia amaitu eta gero, ekintzen bilduma bidaliko zaio eskumena duen agintaritzari behin betiko ebazpena eman dezan.

IV. KAPITULUA- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

76. artikulua:- Arau-hauste eta zehapenen erregimena

1. Araudi osagarrian eta ordenantza honetan ezarritako ingurumen babesteari buruzko antolamendu juridikoa ez betetzeak, udalak ondorengo arau-hauste eta zigorren araubidea ezartzea ekarriko du: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratarena eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen. Tokiko interesen elkarbizitza harremanetarako eta bere zerbitzuak, ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta gune publikoak erabiltzeko, sektoreko araudi zehatzik ezean, ordenantza honek barne hartzen dituen muga, debeku edo eginbeharrak ez betetzeagatiko arau-hauste eta zigorrak ezartzen dira.

2. Udalak soinu-kutsaduraren gaian zehatzeko ahalaren jardunean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakora egokituko da.

77. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

1. Oso larritzat hartuko dira beste pertsona batzuen berezko eskubideen jardueran edo euren lasaitasunean modu larri, berehalako eta zuzenean nahasmendu nabarmena suposatzearen:

- a) Obra, proiektu edo jarduketak hasi edo egitea ondokoak lortu/ bete/ egin barik: lizentzia, baimen edo ingurumenean duen eraginaren ebaluazioa, egin beharreko aurretiazko komunikazioa edo baimenetan, ezarritako baldintzetara
- b) Ezargarriak diren muga-balioak igarotzea, ingurumenerako hondatze edo kalte larria egin denean edo pertsonen osasuna edo segurtasuna arrisku larrian ipini denean.
- c) Soinu- egoera berezia eta soinu-babes berezia duten guneetan ezarritako muga-balioen gainetiko soinu-kutsadura sortzea.
- d) Sailkatutako jardueren aurre komunikazioari, ingurumenean duen eraginaren ebaluazioari eta mota guztietako ingurumen- baimen eta lizentziak ematean atxiki edo gehitzen diren agirietan eskatzen diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- e) Aldatu den ingurumena berrezarri eta berreskuratzearen administrazio aginduak ez betetzea.

- f) Eskumena duen atalak hartutako kautelazko neurriak ez betetzea.
- g) Soinu- perturbazioa eteteko beharrezkoak diren neurri-zuzentzaileak ez betetzea ezarritako epean, hauek hartzea udal agintaritzak eskatu duenean.
- h) Eskumena duen aginteak denboran mugatu, itxi edo zigilatu duen instalazio edo tresnak abian jartzea.
- i) Arau-hauste larriak errepikatzea.

78. artikulua.- Arau-hauste larriak.

1. Beste pertsona edo jarduerak euren eskubideak betetzean edo euren lasaitasunean izan dezaketen intentsitate berezia dela-eta, arau-hauste larritzat hartuko dira ondorengoak:

- a) Ezargarriak diren muga-balioak igarotzea, ingurumenerako hondatze edo kalte larria ez denean egin ezta pertsonen osasuna edo segurtasuna arrisku larrian ipini ez denean.
- b) Zarata eta dardaren igorpenari dagokionez lizentzia ematea onartuko zuten baldintzak aldatuta garatzea jarduera.
- c) Ordenantza honetan araututako jarduerekin erlazionatutako lizentzia edo baimenak lortzera bideratutako administrazioko espedienteetara gehitutako soinu kutsadurari buruzko datuak asmo gaiztoz ezkutetzea edo aldatzea.
- d) Bide publikoan lanak egitea, manifestatzea eta orokorrean, nahitaezko baimen edo lizentziarik gabe jarduera aztoratzaileak egitea.
- e) Administrazioaren ikertze jarduerari erresistentzia edo oztopoak jartzea, luzatzera, oztopatzera edo eragoztera joko duena. Berezi oztopo edo erresistentzia izango dira:
 - i. Jardueraren edo instalazioaren elementuetako aurrekari, ziurtagiri eta datuak emateari ezezkoa.
 - ii. Nahasmena sortzen duten lokal, tresneria, instalazio edo bestelako elementuak ikuskatzeari ezezkoa.
 - iii. Nahasmena sortzen duen ekintza egin den tokira agente edo ikuskatzaileei sarrera arrazoitu gabe ukatzea.
- f) Udal baimenik gabe edo baimeneko baldintzak bete gabe ibilgailuetan sirenak erabiltzea.
- g) Udal baimenik gabe edo baimeneko baldintzetara egokitu gabe dabilzan alarmak

ipintzea.

h) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

79. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Ihes-hodi librea edo zati baten librea duten ibilgailuekin ibiltzea
- b) Ingurumen urritasunak dituzten motordun ibilgailuekin zirkulatzea
- c) Zerbitzu horretan jabeei azterketa hori egin behar dutela esan eta ibilgailuen kontrolean zehaztutako epean ibilgailuek ez aurkeztea.
- d) Ordenantza honetan ezarritako aginduak ez betetze edo hausteagatik egindako ekintza edo hutsak. Hauek beste pertsona edo jardueren eskubideak modu baketsuan betetzean edo euren lasaitasunen izan dezakeen nahasmenean indar txikiagoa dutelako, ez direnean arau-hauste larri edo oso larri moduan sailkatu.

80. artikulua.- Ibilgailuak ibilgetzea.

Udaltzaingoak ibilgailua berraztertu arte, badaezpadako izaeraz, ibilgailuari zirkulatzeko debekua adierazi ahal izango zaio.

Hala eta guztiz ere, agintaritzaren agenteek ibilgailua bidean dabilela ikusiko balute, gelditu egingo lukete eta udal biltegira eraman. Handik soilik aterako litzateke tailerrera eramateko konpondu beharreko hutsuneak konpontzera, arau-hauslearen kontura.

81. artikulua.- Zigorrak.

1. Aurreko artikuluek erreferentzia egiten dioten arau-hausteak, Alkateak zigortuko ditu hurrengo ataletan ezartzen den moduan:

- i) 1.- Arau- hauste arinak, 750 eurorainoko isunarekin.
- ii) 2.- Arau-hauste larriak, kasuaren arabera, honen bitartez:
 - (a) 751eurotik 24.000 eurorainoko isuna.
 - (b) Aldi baterako lizentzia edo baimena kentzea, sei hilabete baino gutxiagoko epean.
- iii) 3.- Arau-hauste oso larriak, kasuaren arabera, honen bitartez:
 - (a) 24.001 eurotik 1.200.000 eurorainoko isuna.

(b) Aldi baterako lizentzia edo baimena kentzea, zazpi hilabetetik urte baterako epean..

(c) Lizentzia behin betikoz kentzea, jarduera itxierarekin, hiru arau hauste oso larriengatik multa jarraituak ipini eta gero.

2. Aurreko atalean aurreikusitako zigorrek izaera metagarria izango dute.

82. artikulua.- Zigorren mailaketa eta ordezkapena.

1. Eragindako arrisku edo kalteak, lortutako onurak eta intentzionalitateak zigorrak handitzea ekar lezakete, baita ekintza berarekin Ordenantzaren edo ezar daitekeen ingurumen araudiaren hainbat arau hausteak ere.

2. Egoera larrigarri errepikariak kontuan hartuta, inola ere ezin izango dira ezarri larriagoak diren arau-hauste edo maila urratzaileetarako aurreikusitako zigorrik:

3. Ordenantza honetan aurreikusitako isunen ordezkari, jarduera ixtearekin zigor daiteke, hirugarrenen eskubideak babesteko eragingarriagoa izan daitekeela uste denean.

4. Erabaki irmoz ezarritako isunen ordezkari jarduera ixteko zigorra jar daiteke isunik ordaindu ez denean.

5. Administrazio erantzukizuna arintzen duen inguruabar modura hartuko da, jarduerak pertsonen lasaitasuna eta segurtasunarengan dauzkan eragin kaltegarriak gutxitu edo kentzeko neurri zuzentzaileak hartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Jarduera baimenak, eskaeraren eskakizunei, informazio publikoko izapideei, txostenak egiteari eta neurri zuzentzaileak ezartzeari dagokienez, otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege orokorreko III. Kapituluko III. Idazpuruan xedatutakoaren arabera eta bere garapenean ematen diren xedapenen arabera arautuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurreko xedapenen arabera eskatutako egokitzapenak bereziki garestia den edo teknikoki edo juridikoki egingarria ez den neurriren bat hartu behar izatea behartzen badu, Udalak, interesatuak eskatuta eta administrazio espediente kontraesankorreetan eta behar besteko arrazoiarekin, aipatutako ezaugarriak biltzen dituzten neurri zehatz edo neurriak hartzetik salbuetsi ahal izango du jarduera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, 2003ko ekainaren 16ko BAO on argitaratu zen Bermeoko Zarata eta Dardaren Ordenantza eta osteko aldaketak, indargabetuta geratuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.-

Ordenantza honetako xedapenak ezargarriak izango dira, udal eskumeneko gai desberdinak arautzen dituzten indarrean dauden Udal Ordenantzen kalterik gabe.

BIGARRENA:-

Alkatetza dekretuz II. eranskineko soinu-neurketaren metodologiari buruzko zehaztasunak aldatu ahal izango dira.

HIRUGARRENA-

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen den egunaren biharamunean.

ERANSKINA.- DEFINIZIOAK

- a) XURGAPEN AKUSTIKOA.-Hainbat material eta objektuk energia akustikoa bero bihurtzeko duten gaitasuna, bai soinu hori ingurune baten zabaltzearen bai bi inguruneko banaketa-azalera zahutzearen.
- b) SOINU INPAKTUA ERAGIN DEZAKETEN JARDUERAK- Lizenzia, baimena, aurretiako komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpenaren pean dauden jarduera guztiak, eta udalaren irudiz inpaktua sor dezaketenak, 37. artikuluan aipamena egin zaienez gain.
- c) ALARMA.- Kokatuta dagoen instalazioa, lokala edo ondasuna baimenik gabe manipulatzeko ari dela adieraztea helburutzat duen soinu aparailu oro.
- d) SISTEMA MONOTONALEKO ALARMA.- Tonu bakarra gailentzen den alarma edo sirena oro.
- e) SISTEMA BITONALEKO ALARMA.- Bi tonu erabat bereizgarriak dituen alarma edo sirena eta denbora-tarte konstanteak gordez dabilena.
- f) FREKUENTZIA SISTEMADUN ALARMA.- Igorritako soinuaren frekuentzia nagusia modu kontrolatuan, eskuz edo automatikoki alda daitekeen alarma edo sistema oro.
- g) ISOLAMENDU AKUSTIKO GORDINA.- Aretoetako baten kokatutako soinu-iturri bat edo gehiagok bi aretoetan egindako presio akustiko mailen neurri espaziotemporalen arteko diferentzia.
- h) ISOLAMENDU AKUSTIKO NORMALIZATUA.- Areto hartzaile bateko erreberberazio-denboraren erreferentziako balio bati dagokion isolamendu akustiko gordina.Oharra: UNE 74.040/111 Arauan adierazitako baldintzetan laborategian neurtutako eraikuntzako elementu baten isolamendua.
- i) BOZGORAILUA.- Seinale elektrikoetatik abiatuta oszilazio elektrikoak eskuratzea ahalbidetzen duen transduktorea, bere inguruan potentzia akustikoa hedatzeko diseinatuta dagoena. "Bozgorailu" hitza oinarritzko bozgorailuari aplikatzen zaio eta baita muntatze akustiko osoari ere.
- j) DEZIBELA.- Belaren hamarrena.Dezibela bela baino sarriago erabiltzen da maila-unitate moduan.Dezibela potentziaren proportzionala den magnitude baterako eta logaritmoaren oinarria hamarren hamargarren erroduraren berdina delarik erabilitako maila-unitate moduan defini dezakegu. Dezibela, era berean, eremu baten maila-unitatetzat ere erabiltzen da, logaritmoaren oinarria hamarren hogeigarren erroduraren berdina delarik.

- k) SOINU-ITURRI BAKUNA.- Eremu zabal baten soinua norabide guztietan berdin hedatzen duen soinu-iturria da.
- l) SOINU-ITURRI PUNTUALA.- Soinu-iturri honek hedatzen duen soinua antza denez puntu bakarretik datorrena da.
- m) MATERIAL ISOLATZAILE AKUSTIKOA.- Soinu-igorpenaren aurkako isolamenduan erabilitako materiala.
- n) SOINURIK GABEKO MATERIALA (DARDAREN AURKAKOA).- Talka edo dardarak dituen zarata gutxi ateratzen duen eta talkaren ondoriozko zaratak eta dardarak hedatzea murrizten duen materiala.
- o) MIKROFONOA.-Soinu-ozilazioen bitartez seinale elektrikoak lortzea ahalbidetzen duen transduktore elektroakustikoa.
- p) MAILA.-Magnitude zehatz baten balioaren eta magnitude beraren erreferentziako balio baten arteko koizientearen logaritmoa da. Ondorengoak zehaztu behar dira: Logaritmoaren oinarria, erreferentziako balioa eta maila-mota. Oharrak:
- Maila-mota adierazteko esaera konposatua erabiltzen da, hala nola, “potentzia akustikoko maila” edo “presio akustikoko maila”.
 - Erreferentziako balioa ez da aldatzen nahiz eta aukeratutako magnitudea balio eraginkorrean, gailur-balioan edo bestelako baten adierazi.
 - Logaritmoaren oinarria zehazteko oinarri horrekin lotutako maila-unitate bat erabiltzen da.
- q) PRESIO AKUSTIKOAREN MAILA. Presio akustiko zehatz baten eta erreferentziako hartutako presio akustikoaren balioaren arteko koizientearen logaritmoa da. Presio akustikoaren maila, dezibeleetan adierazia, koiziente horren logaritmo hamartarra hogeitaz bezalakoa da.
- r) ZONAKO PLAN AKUSTIKOA.- Lurraldeko administrazio publiko batek garatzeko jardute multzoa, soinu babes bereziko gune baten soinu kutsadura gutxitzeko eta bertan ezartzeko diren soinu kalitatezko helburuak lortzera bideratutakoak direnak.
- s) POTENTZIA AKUSTIKOA.- Iturri zehatz batek denbora-unitatean igortzen duen energia da.
- t) PRESIO AKUSTIKOA.- Soinu-uhin bat dagoela puntu zehatz baten bat-bateko osoaren presioaren eta puntu bereko presio estatikoaren arteko diferentzia da.

- u) ERREBERBERAZIOA.- Soinuaren etengabeko islapen eta sakabanatzeen ondorioz, soinu-iturria gelditu ondoren gune itxi baten irauten duen soinua da.
- v) ZARATA.- Oinarrizko maiztasun desberdinak dituzten soinu-nahasketa konplexua da. Zentzu zabalean, giza jardueraren baten parte hartzen den edozein soinua zaratatza har dezakegu.
- w) INGURUKO ZARATA.- Ordenantza honi dagokionean, garraiobideek, ibilgailu, tren eta aireko zirkulazioak eta industria-jarduerak igorritako kanpoko soinua da.
- x) SIRENA.- Edozein ibilgailu mugikorretan etengabe edo aldi behin instalatutako hots tresna guztiak, haren xedea larrialdietako zerbitzua egiten ari dela jakinaraztea baldin bada.
- y) SOINUA.- Entzumen-sentipena sortzeko gauza den dardara akustikoa.
- z) SONOMETROA.- Presio akustikoko maila neurtzeko balio duen tresna, berau maiztasun normalizatutako ponderazio baten eta normalizatutako denbora ponderazio esponentzial baten bitartez ponderatua.
- aa) DARDARA AKUSTIKOA, OSZILAZIO AKUSTIKOA.- Ingurune elastiko baten partikulak mugitzea oreka-posizio baten inguruan.
- bb) SOINU-BABES BEREZIA DUTEN GUNEA (SBBDG): Ezar daitezkeen soinu kalitatearen helburuak betetzen ez diren soinu gune edo guneak, eta Administrazioak horrela adierazten dituenak eta dagokien Zonakako Plana finkatzen zaizkienak.

II. ERANSKINA- ZARATA MAILA NEURTZEKO METODOLOGIAK

A. *Neurtzeko prozedurak*

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko II. Eranskinean eta Ordenantza honetako 78 eta 82. artikuluek erreferentzia egiten diotenak, zehaztutako soinu kalitatearen helburuak betetzen direla egiaztatzeko ebaluazio-prozedurak beti egingo dira aipatutako eranskinak erreferentzia egiten dion metodologiaren aplikazioaren bitartez.

Bestalde, 213/2012 Dekretuko II. eranskinak berak xedatzen duen bezala, jardueren ikuskapenerako, neurketen bidez baino ez da egingo soinu-indizeen balorazioa.

1. NEURGAILUAK

1.1 Ordenantza hau betetzen dela egiaztatzeko egiten diren neurketetan erabiltzen diren sonometro eta kalibragailuek urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 30. artikuluan zehaztutako baldintzak beteko dituzte.

1.2 BESTELAKO EKIPOAK

Oihartzun- denbora neurtzeko erabilitako ekipoa UNE EN ISO 3382:2001 edo ordezkatzeko duen arauan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

Aireko zarata-isolamenduaren neurketarako erabiliko den soinu emisioaren kateak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- Soinua egonkorra izan behar da eta aztertutako maiztasunen rangoan espektro jarraitua eduki beharko du.
- Zarata jasotzen duen lokalak inguru-zaratarekiko behar bezain maila altua izango duela ziurtatzea eta maiztasun-banda bakoitzean inguru-zarata baino, gutxienez, 10 dB altuagoko maila bermatzea. Horrela ez bada, zehaztutako moduan, zuzenketak egingo dira.
- Alboetako 1/3 zortziko banden artean 6 dB baino maila altuagoko desberdintasunik ez egotea eskatzen da.

Zarata-iturriak UNE-EN-ISO 140: 1999 edo ordezkutzen duen arauko zehaztasunak bete beharko ditu.

Normalizatutako kolpe-makinak UNE EN-ISO 140-7:1999 edo ordezkutzen duen arauko zehaztasunak bete beharko ditu.

Neurketen kalitatea bermatzeko, ekipoak kalibrazio epea eta trazabilitatea barne hartuko duen mantentzerako eta kalibraziorako planean sartuta egon beharko dira.

Sonometroak erabili baino lehen eta geroago kalibratutako dira gutxienez, dagokien soinu-kalibradoreak erabiliz.

Erabilitako ekipoek (sonometro eta kalibradoreek) urteroko egiaztatze-plana izan beharko dute.

Dardarak neurtzeko ekipoek UNE EN ISO 8041:2006 edo ordezkutzen duen arauko zehaztasunak bete beharko ditu.

2. INGURUKO ZARATENGATIKO ZUZENKETAK

Immisio mailak neurtzea eskatzen den puntuetan inguru-zarataren neurketak egin beharko dira, jardueragatik sortutako mailetan eraginik izan ez dezan ziurtatzeko.

INGURU-ZARATA ERAGOZPEN-ITURRIA JARDUTEN EZ DAGOENEAN EGON DAGOEN ZARATA MAILA DA.

Inguru-zarata, eragozpenaren jatorrizko iturriak sortutako neurtutako maila baino gutxienez 3 dB (A) baxuagoa izan beharko da

Eragozpen-iturria jarduten dagoela zein ez dagoela neurtutako zarata mailen aldea 10 dB baino txikiagoa bada, ondoko zuzenketa egingo da:

- Neurketa zainketa edo ikuskapeneko bada, zuzenketa egingo da neurtutako balioari ondoko taulako mailen diferentziari dagokion balioa kenduta:

INGURU-ZARATENGATIKO ZUZENKETAK						
	MAILEN DIFERENTZIA					
Diferentzia	< 3 dB	3-4	> 4 - 5	> 5 - 6	> 6 - 8	> 8 - 10
Zuzenketa	Ez	2,5	2	1,5	1	0,5

- Ingeniaritzako neurketen kasuan, zuzenketa egiteko ondoko formula erabiliko da:

$$L = 10 \log (10^{(L_{\text{neurtutakoa}}/10)} - 10^{(L_{\text{RF}}/10)}) \text{dB (A)}$$

Non,

L : Zuzendutako azken maila, dBtan.(A)

$L_{\text{neurtutakoa}}$: Iturria funtzionamenduan dagoela neurtutako maila.

L_{RF} : Iturria geldi dagoela inguru-zarata/ dardara maila.

Mailen diferentzia 3 dB(A) baino txikiagoa bada, txostenean inguru-zaratak neurtutako mailetan eragina daukala adieraziko da.

Mailen diferentzia 10 dB(A) baino altuagoa bada ez da izango beharrezkoa inguru-zaratagatik inolako zuzenketa aplikatzea.

Neurketak maiztasunetan egiten badira, zuzenketa maiztasun-banda bakoitzean egiten dira.

Zarata-iturriaren funtzionamendua gelditu ezin delako inguru-zarataren neurketa egin ezin den kasuetan, ondoren zehazten den moduan ebaluatuko da inguru-zarata atxikitako maila: Neurketa egiten den bitartean soinu-presioaren (L_p) mailak begiratuko dira, txostenean inguru-zarata moduan adieraziz teknikariaren irudiz aztertutako zarata-iturriari lotuta ez daudenak.

3. NEURRI MOTAK

Eranskin honetan jasotzen diren neurketa-motak honako hauek dira:

- Barrualdeko ingurunean bizileku erabilera duen hiri-lurrean dauden jardura edo instalazio finkoetarako soinu-indizeen balioak zehaztea dBAtan.
- Kanpoaldeko ingurunean bizileku erabilera duen hiri-lurrean dauden jardura edo instalazio finkoetarako soinu-indizeen balioak zehaztea dBAtan.
- Lokalen arteko aireko zaratan soinu-isolamendua zehaztea "in situ".
- Fatxadetako aireko zaratan soinu-isolamendua zehaztea "in situ".
- Lokalen arteko zarata-inpaktuan isolamendua zehaztea "in situ".
- Eraikinetan dardara- mailak zehaztea.

Neurketen arteko konparazioa egin ahal izateko eta errazteko, hurrengo atalean neurketa mota desberdinetarako prozedura zehazten da, eta horrela dagokionean, neurketaren zehaztasun maila kontuan hartuta metodo desberdinak berezitzen.

4. SOINU-INDIZEEN BALIOAK ZEHAZTEA.

Soinu-maila osoak zehazteari buruzko neurketek ondorengo baldintzak beteko dituzte:

- Neurketak modu jarraian egin daitezke ebaluazioaren denbora tarte osoan edo ebaluazioaren denbora tartearen barruan aukeratutako denbora-zatietan soinu-presioaren mailaren laginketa metodoak aplikatuz
- Neurketan ebaluatzeko epe bakoitzerako soinu presioaren mailako laginketa metodoak ezartzen direnean (egun, arratsalde, gaua), ebaluatzen ari den zarataren ezaugarrien arabera, Ti neurketa bakoitzaren denbora tarteak, egin beharreko neurketa kopurua n eta neurketen arteko denbora tarteak aukeratuko dira. Horrela, neurketaren emaitza ebaluatzeko denbora tartean ebaluatzen ari den adierazlearen balorazioa adierazgarria izan dadin.
- Epe luzerako batazbesteko soinu mailak zehazteko, epe luzean batazbestekoa egindako soinu mailaren adierazgarria den estimazioa lortzeko behar diren beste lagin independente lortu beharko dira.
- Kanpoaldean ebaluazio puntuaren altuera aukeratzeko altuera desberdinak aukeratu ahal izango dira. Alabaina, azpian zehazten diren moduko aplikazioetan lurraren gainetik 1,5 metro baino baxuagoak ezin izango dira inoiz izan:
 - o Soinu-planifikazioa,
 - o Gune zaratatsuak zehaztea,
 - o Solairu bakarreko etxedun landa-eremuetan soinu-ebaluazioa,
 - o Tokiko neurriak prestatzea etxebizitza zehatzetan soinu-inpaktua txikitzeko eta
 - o gune mugatu baten zarata- mapa zehatza egitea, non etxebizitza bakoitza zarataren eraginpean zelan dagoen erakusten duen.
- Erakinen barrualdean egiten diren neurketak ate eta leihoak itxita egingo dira, eta ebaluazio-puntuko kokaleku lehenetsiek jarraian ageri diren zehaztapenak beteko dituzte eta gutxienez hiru kokaleku egongo dira.

Ebaluazioko lehenetsitako kokalekuak horma edo bestelako gainazaletatik gutxienez metro 1era egongo dira, zorutik 1,2 eta 1,5 metro artean eta leihoetatik gutxi-gorabehera 1,5 metrotara. Kokaleku hauek ezinezkoak direnean, neurketak esparruaren erdigunean egingo dira.
- Neurketen helburua jardueren azterketa denean, zarata sortzen duten tresnen titular edo erabiltzaileek, aire zabalean edo establezimendu edo lokaletan,

ikuskatzaileei euren instalazioetarako edo zarata sortzen duten guneetarako sarrera erraztuko diete eta ikuskatzaileek esaten dieten abiadura, karga edo martxa desberdinetan funtzionatzen jarriko dituzte. Erabilera-prozesu osoa ikusi ahal izango dute haiak.

- Neurketa, bai sortutako zaratetarako bai soinu-igorleek bidaltzen dituztenetarako, babestu beharreko gunerik sentikorreneko baliorik altuena duen lekuan egingo da.
- Soinu-igorlearen ezaugarriengatik, ebaluazioak dirauen bitartean soinuaren igorpen mailan aldaera esanguratsuak daudela ikusten bada, hau zatituko da denbora tarteetan T_i ; edo zarata faseetan (i) zeinetan soinu-presioaren maila ebaluazio puntuan modu berdintsuan sumatzen den.
- Zarata-aldi bakoitzean, gutxienez $L_{K_{eq,T_i}}^2$ aren 3 neurketa egingo dira. Gunearen funtzionamenduaren baldintzengatik edo bestelako arrazoiren batengatik 3 neurketa egitea ez balitz posible, lagin kopuru txikiagoarekin lortutako emaitzak onargarriak izan daitezke, beti ere neurketa egiteko ardura duen teknikariak behar den moduan ziurtatuta uzten duenean.
- Neurketak baliozkotzat hartuko dira, lortutako puntako balioen arteko desberdintasuna 6 dBA baino txikiagoa edo berdina denean gorabeherak dituzten soinetarako eta 3 dBA soinu jarraituentzat.
- Desberdintasuna handiagoa balitz, hiru neurketako segida berri bat lortu beharko da.
- Gainontzekotik balio oso desberdina errepikatuko balitz, jatorria ikertuko litzateke. Aurkitzen bada, neurketak bost biderrera arte errepikatu beharko dira, balio horren iturria neurketa bakoitzaren bost segundoko iraupenean abian hasteko moduan.
- Lortutakoen batezbesteko balio-energetiko hartuko da $L_{K_{eq,T_i}}$ aren neurketaren emaitza modura.
- $L_{K_{eq,T_i}}$ a zehaztean, eranskin honetan azaldutako inguruko-zaratarengatik zuzenketa hartuko da kontuan.
- Zarata-aldiak zehazten direnean, ebaluazio denbora aldian soinu-maila neurtutako zarata aldi bakoitzeko $L_{K_{eq,T_i}}$ indizeen balioetatik hasita zehaztuko da.

² K: eranskin honetako B ataleko 2 azpi-atalean aipamena egiten dion tonu osagai, pizgarri edo frekuentzia baxukoengatik zuzenketa erreferentzia egiten dio.

$$\text{Non: } L_{K_{eq}, T} = 10 \lg\left(\frac{1}{T} \sum_{i=1}^n T_i 10^{0.1 L_{K_{eq}, T_i}}\right)$$

T, aintzat hartutako ebaluazioko denbora aldiari dagokion denbora da, segundotan ($\geq T_i$).

T_i , i zarata-aldiei lotutako denbora tarte da. T_i -en batuketa= T .

n , erreferentziazko T denbora aldia deskonposatzen den zarata faseen kopurua da.

Ateratzen den soinu-mailaren balioa 0,5 dB(A) gehituz borobilduko da, balio osoa hartuz ateratzen den balio moduan.

- Zarata-aldi bakoitzean, gutxienez L_{AFmax} aren 3 neurketa egingo dira. Gunearen funtzionamenduaren baldintzengatik edo bestelako arrazoiren batengatik 3 neurketa egitea ez balitz posible, lagin kopuru txikiagoarekin lortutako emaitzak onargarriak izan daitezke, beti ere neurketa egiteko ardura duen teknikariak behar den moduan ziurtatuta uzten duenean.
- Lortutakoen balio handiena hartuko da L_{AFmax} aren neurketaren emaitza modura.
- Soinu-mailen ebaluaziorako neurketak egitean ondoko neurriak hartuko dira:
 1. Neurketako ekipoaren egilearen zehaztasunekin bateragarriak izan beharko dira hezetasun eta tenperatura baldintzak.
 2. Nahitaezkoa izango da neurketa bakoitza baino lehen eta gero, soinu-kalibratzaileaz neurketa-katearen soinu-egiaztatzea egitea, hasierako erreferentzia balioarengandik 0,3 dB baino handiagoa ez den desbideratze tarte berma dezan.
 3. Haizearen kontrako pantailak dituzten neurketa ekipoak erabiliz egingo dira kanpoko ingurunean egiten diren neurketak. Era berean, ebaluazio egiten behar den tokian haizearen abiadura segundoko 5 metro baino handiagoa bada, ez da neurketarik egingo.

4.1 Barruko ingurunean soinu-mailak zehaztea.

ZAINTZA- NEURRIAK

Ebaluazio indizeetan zehaztapena egingo da, "Fast" denborako erantzunean eta ponderazioa "A" maiztasunean.

- Neurketa- ekipoaren kalibrazioa, neurriak egiten hastean eta amaieran egingo da, gutxienez.
- Neurketak, eragin handiena jasaten duen gelaren erdian egingo dira (sukalde, komun eta karrajuak ekidinez) eta edozein objektu edo azaleratik ahalik eta urrunen egingo dira, ateak eta leihoak itxita mantenduz.
- Ahal denean, atzeko zarata neurtuko da; hau da, kontrolatu beharreko zaratarik ez dagoeneko.

Neurketa denbora zarataren tipologiaren arabera izango da, beti ere beronen garapenean adierazgarriak diren tarteak aukeratuz. Horrela ba, atzeko zarataren gainetik entzun daitezkeen zarata jarraituak 10 segundo eta minutu bateko tarteetan beha daitezke. Denboran gorabeheratsuak diren zaratak neurtzeko denbora luzeagoko behaketak behar izango dira (sonometroaren pantailako L_{Aeq} maila egonkortzeko beste denbora).

Noizbehinkako zaraten kasuan gertakizunak dirauen bitartean egingo da neurketa (garajeko atea, igogailua, konpresorea), neurketaren denbora jasoz eta gertakizuna errepikakorra bada, maiztasuna.

Balio-adierazgarria izango da neurtutako balioen batazbestekoa eta neurtutako gehienezko balioetako altuena.

Txostenean zera jasoko da:

- Teknikariaren izena
- Data, ordua, helbidea
- Erabilitako ekipoa (modelo, serie zenbakia eta kalibrazio eta egiaztapen ziurtagiria).
- Zarataren deskribapena
- Zarata mota (jarraitua, gorabeheratsua, indartsua...)
- Igorpen gunea
- Neurtutako mailak
- Tonu edo indar osagaiak egotearen balorazio subjektiboa

“Zaintza-neurriak” Ingurumen teknikariek balioztatu beharko dituzte dagokion mugatik ± 3 dB desberdintzen direnean edo tonu edo indar osagaiak daudela irizten denetan.

IKUSKATZE-NEURKETAK

Aurrekoen antzeko neurketak dira baina honako aldaketak dituzte:

- Egin beharreko neurketen araberako gaitasuna duten teknikariek egingo dituzte neurketak.
- Neurketa egin baino lehen eta ostean, soinu-kalibratzaile batekin egiaztatuko da sonometroa.

Txostenean zera jasoko da:

- Teknikariaren izena
- Data, ordua, helbidea.
- Erabilitako ekipoa (modelo, serie zenbakia eta kalibrazio eta egiaztapen ziurtagiria).
- Zarataren deskribapena.
- Zarata mota (jarraitua, gorabeheratsua, indartsua...)
- Igorpen gunea.
- Neurtutako mailak.
- Atzeko zaratagatiko zuzenketa.
- Tonu edo indar osagaiak egotearen balorazio subjektiboa
- Zigorak: Zarata motaren araberakoak.

LABORATEGIKO NEURKETA

Eragindako lokalean dauden presio mailak zehazteaz gain, etxebizitzan barruan, tonu edo indar osagaien zehaztapena ahalbidetuko du.

Neurketa egin baino lehen eta ostean, soinu-kalibratzaile batekin egiaztatuko da sonometroa.

Aurretiazko ikuskapen kualitatibo baten bidez eragozpenaren iturriak zeintzuk diren identifikatuko dira.

Neurketak, zarata- iturria zarata-iturrirako igorpen altueneko mailan mantenduz egingo dira. Funtzionatze hainbat baldintza daudenean, funtzionatze nominalari dagokiona eta gehienezko funtzionatzea ebaluatuko dira.

Zarataren izaera definituko da: Jarraitua, aldizkakoa, pizgarria, tonu garbia duena, eta abar.

Funtzionatzeko modu desberdinak egiaztatuko dira igortzen duen lokaleko mailak edo jardueraren ingurukoak neurtuz. Informazio honek erreferentzia moduan balioko du neurketak ze baldintzatan egin diren jakiteko eta neurketen konparaziorako oinarri moduan eta errepikapenerako.

Hartzaileko mailak jarduerak gehien eragiten dion lokalean neurtuko dira, atea eta leihoak itxita mantenduko dira eta gelan neurriak hartzen diren bitartean neurriok hartzen dagoen teknikaria baino ez da egongo.

Soinu-gunearen funtzionamenduaren arabera aukeratuko da neurtzeko denbora aldia eta garapenaren maila adierazgarria lortzeko beharrezkoa den denbora neurtuko da beti. Edonola ere, erabilitako neurketa aldia txostenean sartuko da.

Neurketak erantzuna FAST denboran eta ponderazioa A maiztasunean erabilia egingo dira.

Neurketaren maila adierazgarria, izaera jarraitua duen zarataren kasuan egindako neurketen batazbestekoaren emaitza izango da; eta zarata aldakorra denean neurtutako mailetatik baliorik altuena duena. Neurketaren L_{AFmax} maila adierazgarria neurtutako baliorik altuena izango da.

Gainera, zarata pizgarriak edo osagai tonalak daudela antzematen bada, balizko zigorrak ezartzeko helburuarekin, ondorengo neurketa osagarri hauek egingo dira:

Osagai pizgarriak dauden ebaluatzeko, « L_{Aeq} » gorengo maila zehaztea “Impulse” denbora-ponderazioarekin eta A maiztasun ponderazioarekin.

Osagai tonalak dauden ebaluatzeko, 1/3 zortziko bandetan soinu-maila zehaztea iragazkien bidez.

Neurketak oihartzunik ez dagoen geletan egingo dira; beraz, sukalde, bainugela eta korridoreak saihestuko dira.

Txostenean zera jasoko da:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Data, ordua, helbidea.
- Erabilitako ekipoa (modelo, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria).
- Zarataren deskribapena.
- Zarata mota (jarraitu egonkorra, jarraitu ausazkoa, noizbehinkakoa, pizgarria...)
- Foku igorlea, funtzionatzeko moduaren edo moduen deskribapena.
- Igorle eta hartzailean neurtutako balioak ,funtzionatzeko baldintza desberdinetan.
- Osagai tonalen egotea.
- Osagai tonal pizgarriak egotea.


- Zigorrak.
- Foku eta neurketa puntuen kokapen eskema.

4.2 Kanpoko ingurunean soinu-mailak zehaztea.

Zarata indize bidezko kanpoaldeko soinu mailen ebaluazioan, kontuan hartzen den soinua soinu erasotzailea da, hau da, ez da kontuan hartzen bere parametro bertikalean islatutako soinua.

Neurketak lurra baino maila altuago baten egiten badira, neurketa sonometroa leiho edo balkoi batetik aterata egingo da, bertatik metro bat baino distantzia txikiagoan .

Edonola ere, mikrofonoa fatxadako ertzetatik metro bat baino gehiagoko distantzian kokatuko da.



ZAINTZA- NEURRIAK

Haizearen kontrako babes pantailak erabiliko dira.

Euria, haize gogorra edo kontrako haizea dagoenean ez da neurketarik egingo.

Neurketek, Ordenantza honetan zehaztutako erreferentzi epeetan Leq-a lortzeko adierazgarriak diren zarata-iturriak dabiltzan tartekak bete beharko dituzte.

Iturriaren ohiko funtzionamenduan egin beharko dira neurketak, mailari gorenena sortzen diren denbora tartekak aukeratuz eta beraz, eragozpen handiena dagoenean.

“Zaintza-neurriak” Ingurumen teknikariek balioztatu beharko dituzte dagokion mugatik ± 3 dB desberdintzen badira edo osagai tonal edo pizgarriak egon daitezkeela uste bada.

Neurketaren txostenean barruko zaratetarako jasotzen diren alderdi berak jasoko dira.

IKUSKAPEN NEURKETAK

Aurrekoen antzeko neurketak dira, jarraian datozen aldaketekin:

- Neurketak, egin beharreko neurketak egiteko gaitasuna duten teknikariek egingo dituzte.
- Neurketa egin baino lehen eta egin eta gero, soinu-kalibratzailearekin egiaztatuko da sonometroa.
- Neurketaren txostenean barruko zaratetarako jasotzen diren alderdi berak jasoko dira.

LABORATEGIKO NEURKETAK


Eguraldi-baldintzek izan dezaketen balizko eragina kontuan izango da. Neurketak egonkortasun baldintza handienetan egitea gomendatzen da (zarata-iturritik hartzailearengana aldeko haize arina dagoenean edo normalean gaez egoten den alderantzizko tenperatura baldintza arinak daudenean). Edonola ere, neurketan dauden eguraldi-baldintzak zehaztuko dira eta eurotan izan dezakeen balizko eragina.

Haizearen kontrako babes pantailak erabiliko dira.

Euria, haize gogorra (5 m/sko abiadura baino handiagoa) edo kontrako haizea (hartzailearengandik igorlearengana) dagoenean ez da neurketarik egingo.

Eguraldiaren baldintzak ez dira kontuan hartuko iturriaren eta hartzailearen arteko distantzia 25m baino txikiagoa denean, iturriaren altuera 2m baino txikiagoa denean eta hartzailea 1.5 m baino altuera txikiagoan kokatuta dagoenean (A EGOERA).

Horrela, ez da beharrezkoa izango eguraldi-baldintzak kontrolatzea igorle-hartzaile altuera handiagoetarako, euren arteko distantzia 50m baino txikiagoa denean (B EGOERA).



Ordenantza honetan zehaztutako erreferentzia tarteetan (eguneko/ gauzkoa) LAeq eta LMax lortzeko argigarriak diren zarata iturriaren funtzionatze tarteak bete beharko dituzte neurriek.

Gunearen ohiko funtzionamenduan egin beharko dira neurketak, mailari gorenenak sortzen diren denbora tarteak aukeratuz eta beraz, eragozpen handiena dagoenean.

4.2.1 Parametro osagarriak

Kasu batzuetan, azterketak osatzeko, beharrezkoa izango da beste parametro batzuk erregistratzea, zarata iturriaren definizio hobea ahalbidetzen dutenak, hala nola:

- Ln. Pertzentil mailak. Aldi berean zarata gune desberdinak daudenean erabiliko diren, euron ekarpen desberdintzeko.
- T.- Prozesuaren funtzionatzeko aldia.
- N.- zikloa zenbatetan errepikatzen den.
- Leq- maiztasuna.- Leq maila maiztasun- banda bakoitzean. Balizko osagai tonalak eta dagokion zigorra zehazteko helburuarekin.

4.2.1.1 Neurtutako mailei zuzenketak

Dagokion atalean zehaztutako atzeko zaratagatiko zuzenketa osagarri, ondoko arazoiengatik neurtutako mailei ondoko zuzenketak egingo zaizkio:

- Tonu-osagaiak
- Osagai pizgarriak

Ateratzen den azken emaitza, tonu-osagaien zuzenketak ezartzea gehi osagai pizgarriengatik zuzenketa independenteen emaitza izango da.

Neurtze- txostena

Neurtze-txostenak zera jaso beharko du:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Txostenaren zenbakia.
- Eskatzailea.
- Jardueraren eta eragindako lokalaren datuak:
 - Mota
 - Helbidea:
 - Udalerria:
- Aukeratutako neurketa tarteak eta iturriaren funtzionatze baldintzak.
- Ikuskapenaren datuak:
 - Data
 - Ordua
 - Teknikaria
 - Erabilitako ekipoa (egilea, modeloa, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria)
 - Neurtzeko lekua
- Neurketen antolaketa: Krokisak gehituko dira beharrezkoa dela uste denean.
- Atzeko zarata (posible den guztietan).
- Metodologia eta/edo prozedura: Ordenantza honi aipamena egingo zaio, eta baita ezartzeko arauei ere. Erabilitako prozeduraren deskribapen laburra sartuko da. Eguraldiaren baldintzek izan dezaketen balizko eraginari aipamena egingo zaio (eragina daukanean kanpoko giroan neurketak).
- Ebaluazio irizpideak: Ordenantza honi erreferentzia egingo zaio eta eremu motaren arabera ezarri beharreko immisio muga mailak eta ezargarria den kasuetan lokalen arteko eskakizunen gutxieneko mailak, baita igorpen maila dagokienean jarduera lizentziaren proiektuan zehaztutako baldintzak ere zehaztuko dira.
- Emaitzak: Neurtutako mailak, parametroak, neurketa tarteak eta baita zuzenketak ere aurkeztuko dira eta Ordenantza honek ezarritako betebeharrak betetzen dira aztertuko da.

5. LOKALEN ARTEKO AIREKO ZARATAREN ISOLAMENDUA ZEHAZTEA

LABORATEGIKO NEURKETAK

UNE EN ISO 140-4:1999 edo ordezkutzen duen arauarekin bat etorri egingo dira neurketak.

Emaitzak taula eta grafiko moduan aurkeztuko dira.

D_{nTA} adierazlea aurkeztuko da (estandarizatutako mailen diferentzia, A ponderatuta) urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuan ezartzen duenarekin bat, Etxegintzako Kode Teknikoaren "DB-HR zarataren kontrako babesa" oinarritzko agiria onartzen duena, eta 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Etxegintzako kode teknikoaren onarpena aldatzen duena.

Neurtze- txostena:

Neurtze-txostenak, gutxienez ondoko informazioa jaso beharko du:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Eskatzailea.
- Txostenaren zenbakia.
- Jardueraren eta eragindako lokalaren datuak:
 - Mota
 - Helbidea:
 - Lokalen zehaztasun partikularrak (beharrezkoa denean krokisak erantsiko dira). Lokalen bolumena eta hormaren /forja arruntaren (zein den jakiten denean azalera eta osaketa) deskribapena sartuko dira
- Neurketen datu orokorrak:
 - Data
 - Ordua
 - Teknikaria
 - Neurketa ekipoak (egilea, modeloa, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria).
 - Metodologia eta/edo prozedura: Araudi honi eta aplikatzeko arauari erreferentzia egingo da eta neurketaren berezitasunen deskribapen laburra sartuko da; hala nola, neurketen kokalekuak eta zenbakia eta abar...
 - Emaitzak: Maiztasun-banda bakoitzean isolamendu-kurbaren emaitzak taula eta grafiko

moduan aurkeztuko dira, eta kontrolatu behar den jarduera motarako Ordenantza honetan eskatutako isolamendu baldintzak betetzea modu objektiboan azalduko da.

6. FATXADETAKO AIREKO ZARATAN ISOLAMENDUA ZEHAZTEA

LABORATEGIKO NEURKETAK

UNE EN ISO 140-5:1999 edo ordezkaten duen arauarekin bat etorritik egingo dira neurketak.

$D_{2m,nT, Atr}$ adierazlea aurkeztuko da (estandarizatutako mailen diferentzia, A ponderatuta, fatxadan) urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuan ezartzen duenarekin bat, Etxegintzako Kode Teknikoaren "DB-HR zarataren kontrako babes" oinarritzko agiria onartzen duena, eta 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Etxegintzako kode teknikoaren onarpena aldatzen duena.

Emaitzak taula eta grafiko moduan aurkeztuko dira.

Neurtze- txostena

Neurtze-txostenak, gutxienez ondoko informazioa jaso beharko du:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Eskatzailea.
- Txostenaren zenbakia.
- Jardueraren eta eragindako lokalaren datuak:
 - Mota
 - Helbidea:
 - Lokalen zehaztasun partikularrak (beharrezkoa denean krokisak erantsiko dira). Lokalen bolumena sartuko da eta horma/ forjatu arruntaren deskribapena (zein den jakiten denean azalera eta osaketa).
 - Neurketen datu orokorrak:
 - Data
 - Ordua
 - Teknikaria

- Neurketa ekipoak (egilea, modeloa, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria).
- Metodologia eta/edo prozedura: araudi honi erreferentzia egingo zaio eta ezarri beharreko arauari eta neurketaren berezitasunen deskribapen labur bat ere sartuko da, hala nola neurketa kokaera eta kopurua eta abar.
- Emaitzak: Emaitzak modu honetan aurkeztuko dira: Kontrolatu nahi den jardueraren isolamendu baldintzak direla-eta, Ordenantza honetan eskatutako isolamendu baldintzak betetzea modu objektiboan azalduko da.

7. LOKALEN ARTEKO KOLPE BIDEZKO ZARATA-MAILA ZEHAZTEA

LABORATEGIKO NEURKETAK

Neurketak UNE EN ISO 140-7:1999 araudiaren arabera egingo dira.

$L_{nT,w}$ adierazlea aurkeztuko da (dB estandarizatutako kolpe zarataren presio maila) urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuan ezartzen duenarekin bat, Etxegintzako Kode Teknikoaren "DB-HR zarataren kontrako babes" oinarritzko agiria onartzen duena, eta 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Etxegintzako kode teknikoaren onarpena aldatzen duena.

Neurtze- txostena:

Neurtze-txostenak, gutxienez ondoko informazioa jaso beharko du:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Eskatzailea
- Txostenaren zenbakia
- Ekintzaren/jardueraren eta eragindako lokalaren datuak:
 - Mota
 - Helbidea
 - Hartzailea den lokalaren bolumena
 - Lokalen zehaztasun partikularrak (beharrezkoa denean krokisak erantsiko dira).
 - Forjatuaren deskribapena
- Neurketen datu orokorrak:

- Data
- Ordua
- Teknikaria
- Neurketa ekipoak (egilea, modeloa, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria).
- Metodologia eta/edo prozedura: Araudi honi eta aplikatzeko arauari erreferentzia egingo da eta neurketaren berezitasunen deskribapen laburra sartuko da; hala nola, neurketen kokalekuak eta zenbakia eta abar...
- Emaizak: Maiztasun banda bakoitzean isolamendu-kurbaren emaitzak taula eta grafiko moduan aurkeztuko dira, baita isolamendu indizea 1371/2007 Dekretuan zehaztutako moduan kalkulatu ere.
- Neurketaren mugak aipatuko dira kolpe makinak igorritako soinu presio maila inguruko zarataren banda batzuetan eragina dutenean.
- Ondorioak: kontrolatu nahi den jarduera-motaren isolamendua dela-eta, Ordenantza honetan eskatutako isolamendu baldintzak betetzea modu objetiboan azalduko da.

8. ERAIKINETAN DARDARA- MAILAK ZEHAZTEA.

LABORATEGIKO NEURKETAK

Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan zehaztutakoari jarraiki egingo dira

Neurtze- txostena

Neurtze-txostenak, gutxienez ondoko informazioa jaso beharko du:

- Neurketak egiten dituen teknikari eta/edo erakundearen izena.
- Txostenaren zenbakia.
- Eskatzailea.
- Iturriaren deskribapena
 - Funtzionatzeko erak,
 - Kokalekua, mota, eta abar.
- Eragindako lokalaren identifikazioa eta deskribapena:
- Neurketen datuak:
 - Data
 - Ordua

- Teknikaria
- Neurketa ekipoak (egilea, modeloa, serie zenbakia eta egiaztapen eta kalibrazio ziurtagiria).
- Neurtzeko lekua
- Neurketen xedapen orokorrak
- Metodologia eta/edo prozedura: Modu labur baten neurketa metodoaren berezitasunak, kokapen eta neurketa kopuruak, batzbestekoak eta abar zehaztuz.
- Ebaluazio- irizpideak, Ordenantza honi aipamena eginez.
- Emaitzak: datuak, ordenantza honetan xedatutako baldintza zehatzak betetzen direla ziurtatzen duen moduan aurkeztuko dira.

B. Zigortzeko irizpideak

1. AURRETIK EGON DIREN ZARATA-MAILEKIN ALDERATUTA ZARATA-MAILA HANDIATZEAGATIK ZIGORRAK

Jarduera berri batek lehendik zegoen zarata-maila 5 dB baino gehiago handitzea badakar, neurtutako balioak zigortu egingo dira, horren ondoren, taula honetako datuen arabera ebaluatu ahal izateko.

AURRETIK EGON DIREN ZARATA-MAILEKIN ALDERATUTA ZARATA-MAILA HANDIATZEAGATIK ZUZENKETA			
GEHIKUNTZA	1-5 dB	> 5 -10 dB	> 10 dB
ZIGORRA	0	3 dB	5 dB

2. OSAGAI TONALAK, IMPULSIBOAK ETA MAIZTASUN TXIKIKO OSAGAIENGATIKO ZIGORRAK.³

Zarata baten neurketa prozesuan tonu- osagai gainerakorrak edo maiztasun txikiko osagaiak edo osagai pizgarrien presentziagatiko, iraupen laburreko eta soinu-presio maila handiko soinuak edo berauen konbinazioen bat daudela ikusten bada, behar diren zuzenketak sartuta zarataren ebaluazio zehatza egingo da. Zuzenketa hauek Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko II. Eranskina, 2. zatiak zehaztutakoa jarraituko dute.

³ 1367/2007 Errege Dekretuak deskribatzen duen moduan. Frekuentzia baxuengatiko zigorren kasuan.

3. ZARATAREN IRAUPENAGATIKO ZUZENKETAK

Zarata-iturria une jakinean edo noizbehinka baino nabari ez denean, gorengo mailari (LAmax) 3dB-tarainoko zigorra kenduko zaio..

Etendunak diren zarata-iturrietan neurtutako Leq,T maila guztiak, berdin dio zein iraupen duten, ebaluazioa egiteko iraupen jakin batera egokituko dira..

Lerreferentzia = Ljarduera + Ldenbora

Denborarengatiko zuzenketa

Ldenbora= 10 log (Tfuntzionamendua/Terreferentzia)

Erreferentzia-denbora neurketaldi bakoitzerako ezarrita dagoena izango da. .

4. ZARATA SAIHESGARRIENGATIKO ZIGORRAK

Ingurumeneko ikuskapenaren ustez, erraz saihestu ahal den edo funsgabea den zarata dagoenean beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, Ordenantza honetan dioenaren arabera.,

III. ERANSKINA- SOINU EBALUAZIOETARAKO AKREDITAZIO IRIZPIDEAK ZAINZA, IKUSKATZEA, INGENIARITZA ETA LABORATEGIA (ERREFERENTZIA KUADROA).

Ebaluazio mota	Egin daitezkeen neurketa eta zuzenketak	Beharrezko akreditazioa	Prestakuntza	Jarduketak. Kautelazko neurriak eta zuzentzaileak.
Zaintza	II. eranskineko ebaluazioak, 5 dBAko konfiantzazko tartearekin	Udaltzaina	LHI edo eskolatu graduatua eta baita urtebeteko esperientzia praktikoa ere.	Auzokoen deiak, gauetzko ordutegian eta asteburukoan. Neurketaren partea egitea. Lanak eta jarduerak gelditzea edo baliabideak zigilatzea, Ordenatzako balioak ≥ 5 dBAtan igarotzen badituzte.
Ikuskapena	II. eranskineko ebaluazioak, 1 dBAko konfiantzazko tartearekin Zuzenketak eta zigorrak: Zarata-iturria, pizgarritasuna, tonu-osagaiak	Ingurumen ikuskatzaileak.	LH II edo goiko mailako batxilergoa. Baita LH I ere edo eskola graduatua, 10 urteko eskarmentuarekin.	Salaketa espedienteak eta instalaziokoak. Ikuskapen aktak. Kautelazko neurriak hartzea: Lanak eta jarduerak gelditzea edo baliabideak zigilatzea, Ordenatzako balioak ≥ 3 dBAtan igarotzen badituzte. Lanen jarraipeneko espedienteak, baimen bereziak eta beste arlo batzuk.

				Txosten teknikoak egitea, zigortzeko, ixteko, neurri zuzentzaileak eta abarren proposamenekin. Musika ekipoen igorpen-espektroak mugatzea.
Laborategia	Konfiantza mailarik gabeko ingeniari-tza moduan Inguruko zarata eta dardaren azterketak: Plan partzialtarako, urbanizazio proiektuetarako, lanetarako eta abarretarako soinu inpaktu- azterketak. Eraikuntza ziurtagiriak.	ENAC akreditazioa duten enpresak edo erakutsi ahal den 5 urteko trebakuntza ebaluazio mota honen antzeko azterketak egiten.	Ingeniaritza teknikoa edo goi mailakoa edo 3 urte baino gehiagoko eskarmentua duten erdi mailako teknikariak.	Ordenantza honetan azaldu bezala azterketak egitea. Udalak hala eskatuta, beste motetako azterketak egin ditzake. Eraikuntza azterketa.

IV. ERANSKINA- ERAIKIN BERRIETAKO OBREI ESKATUTAKO ZARATEI BURUZKO AZTERLAN ETA TXOSTEN TEKNIKOEN EDUKIA ETA BESTE OBRA ETA JARDUERETARAKO BAIMEN BEREZIAK.

A. *Obrak eraikin berrietan.*

- Egon dauden zarata-fokuak identifikatzea.
- Zarata fokuen kokapenaren plano deskribatzailea, ondokoak zehaztuz: Hurbileneko erabilera hautemangarrienerako distantzia (etxebizitzak, ikastetxeak eta klinikak) eta soinu-presioaren maila lanen ondoriozko hurbileneko erabileretan, Ldía eta Ltarde batazbesteko mailetan oinarriturik.
- Lotutako soinu inpaktua ahalik eta gehien gutxitzeko proposatutako neurri zuzentzaile edo aringarrien deskribapena. Edonola ere, aplikatu beharreko neurriek obraren exekuzioari ez diote mugarik suposatuko.
- Ordenantza honetan zehaztutako eskakizunak betetzearen justifikazioa.

B. *Jardueretarako bideratutako lokalen eraberritze edo berriztatze obrak*

- Egon dauden zarata-fokuak identifikatzea.
- Lanen ondorioz hurbileneko erabileretan soinu presio maila, Ldía eta Ltarde batazbesteko mailetan oinarrituta, Ordenantza honetan eta Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan soinu kalitaterako helburu moduan ezarritakoak.
- Lotutako soinu inpaktua ahalik eta gehien gutxitzeko proposatutako neurri zuzentzaile edo aringarrien deskribapena. Edonola ere, aplikatu beharreko neurriek obraren exekuzioari ez diote mugarik suposatuko.
- Ordenantza honetan zehaztutako eskakizunak betetzearen justifikazioa.

C. *Baimen bereziak*

1. Bide publikoetan obrak:
 - Dagokionean, ohiko ordutegiz kanpo egin behar izatea behar bezala arrazoituz, baimena eskatzearen zergatia edo interes orokorra edo herritarren garrantzi berezia.
 - Obraren arduradunaren izena eta telefono mugikorra.
 - Zehatz deskribatu beharko da:

- a) Egin beharreko lanak, kasuan, aurreikusitako faseak zehaztuz.
 - b) Dagokien homologazio eta etiketaia daukatela zehaztuz, erabili beharreko makinaria.
- Obrek 6 hilabete baino gehiagoko iraupena badaukate, ondoko dokumentazioa gehituko da:
- a) Obretan aurreikusitako zereginen planifikazioa.
 - b) Egin beharreko lanen eta zarata fokuen kokapenaren kokapen planoak, ondokoak zehaztuz: Ldia eta Ltarde batazbesteko mailetan oinarrituta jardueraren ondorioz, eurotako soinu presioaren mailak eta erabilera hautemangarrientarako distantzia (etxebizitzak, ikastetxeak eta klinikak), Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan eta ordenantza honetan soinu kalitatearen helburu moduan ezarritakoak.
 - c) Lotutako soinu inpaktua ahalik eta gehien gutxitzeko proposatutako neurri zuzentzaile edo aringarrien deskribapena. Kasu guztietan, aplikatu beharreko neurriek obraren exekuzioari ez diote mugarik suposatuko.
2. Kultur-, kirol-, musika- edo bestelako jarduerak:
- Baimena eskatzearren arrazoia: Jardueraren izaera eta/edo interes orokorra edo herritarren garrantzia berezia.
 - Jardueraren arduradunaren izena eta telefono mugikorra.
 - Zehatz deskribatu beharko da:
 - a) Jardueraren hasiera eta amaiera ordua, beronek dirauen bitartean egon daitezkeen soinu- tarteekin.
 - b) Dagokien homologazio eta etiketaia daukatela zehaztuz, erabili beharreko ekipamendua, megafonia edo makinaria.
 - c) Hartzaile hautemangarriekiko kokapenari eta ekipoen tipologiari jaramon eginez ekimenaren ondorioz hurbileko etxebizitzetan sortutako soinu inpaktuaren aurreikuspena. Azterketa hau egin beharreko lanen eta zarata fokuen kokapenaren kokapen planoan aurkeztuko da, ondokoak zehaztuz: Hurbileneko erabilera hautemangarrienganako distantzia (etxebizitzak, ikastetxeak eta klinikak) eta berauetako soinu-presioaren maila Ldia eta Ltarde batazbesteko mailetan oinarrituta, jardueraren ondorio moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan eta ordenantza honetan ezarritako soinu kalitate helburu moduan.

Sortutako soinu presioaren maila hauek zehazteko, L_{AW} soinu potentziaren datuetatik abiatuta hurrengo matematika formulari erantzungo zaio, zein ekimenean erabiliko den erreproduktzio ekipoen ekoizleek eman beharko duten.

$$L_{Aeq} = L_{AW} - 10 \cdot \log(2 \cdot 3,1416 \cdot r^2)$$

r soinu ekoizpen ekipoaren eta jardueratik hurbilen dagoen erabilera sentiberenaren arteko distantzia da.

Formula hau jardueran dauden soinu ekoizpen guztietarako aplikatuko da. Azken L_{Aeq} aren emaitza, ekipo bakoitzaren L_{Aeq} energia-batuketarekin bat etorriko da.

Azken L_{Aeq} emaitza hori ordenantza honetako soinu kalitatearen helburu moduan erreferentziatutako mailekin alderatuko da.

d) Gaindituz gero, inpaktua gutxitzeko neurri aringarriak definituko dira: Igorpen bolumenaren kontrola, ordutegiak erregulatzea, zabaltzeari mugak ipintzea, kokapena aldatzea, eta abar. Jarduerari lotutako soinu inpaktua ahalik eta gehien gutxitzeko proposatutako neurri zuzentzaile edo aringarrien deskribapena egingo da kasu guztietan.

3. Soinu ekoizleen ekipoak instalatzea:

- Eskaeraren arrazoiak, jardueraren datak eta ordutegia zehaztuz.
- Ipini beharreko lekua.

Bermeon, 2016ko uztailaren 11a
Alkatea
Idurre Bideguren Gabantxo